

# Globalizazioaren inguruko zenbait gogoeta

**Eduardo Bidaurrezaga Aurre**  
EHUko irakaslea

Azken urteetako ekonomiaren joeren eta zenbait gertakari historikoren ildotik, gizarte zientzien alorreko ikertzaile eta aditu askoren hiztegian globalizazio hitza agertu da. Jarraian datozen hausnarketek kontzeptu horren esanahian eta bere erabilpenaren egokitasunean sakondu nahi dute, termino honen atzean dagoen errealitatearen konplexutasuna eta fenomeno honek gizarte mailan eragiten dituen ondorioak agertaraziz.

Following the economics trends and some of the newest historical events during the last few years, we have known a growing use of the term globalization as part of the dictionary of several researchers and experts in the field of social sciences. The following article wants to make an exam of that concept as well as of the proper way of its use, trying to show the complex reality behind it and the social consequences of it.

## 1. Sarrera

Globalizazioaren inguruan galdetuta, egunero egunkaria irakurtzen duen herritar batek sozialismo errearen porrotaz, enpresa transnazionalen botereaz, herrialdeen arteko geroz eta elkarmenpeketasun handiagoaz, teknologia berriek eragiten duten etengabeko aldaketaz osotutako zurrunbiloaz, eta zerutik jausita, gure patuaren parte baillitza, inguratzen gaituen fenomeno kontrolaezinez hitz egingo liguke seguru asko.

Batzuek zerbait ulertzen ez dutenean, euren eskuetatik urrun geratu eta zehazteko zaila den munduratzeko prozesu ustez aseptikoa den honetan aurkitzen dute "azalpena". Beste batzuek ere leku berera jotzen dute eurek edo sistemak eragindako ondorio kaltegarriak zuritu nahi dituztenean, erantzunkizunak abstrakzioan murgilduta omen dagoen ekidinezinezko bizidun honen gainean utziz. Hauxe izatea herritar tipiko batek bere apaltasunetik hartzen duen inpresioa ez da harrizkekoa, gizarte tradizionaletan egiten zen bezala, gertatutakoaren inguruko azalpenik ez daukagunean patuan edo gure eskuetatik kanpo dauden indarretan aurkitzen baitugu aterpe. Baina azterketa sakon batek, berriz, beste ondorio batzuetara eramane beharko gintuzke.

Gaur egun edozein arazo, gertakizun edo egoerak misterioaren munduan barruraino sartuta bide dagoen prozesu honekin zerikusia duela ematen du. Egunkarietako albisteetan, iritzi artikuluetan, irrati tertulian eta abarretan globalizazioa gora eta behera entzuten dugu etengabe. Ez dago zalantzarik, beraz, modan dagoen berba batez ari garela. Baina hainbatetan entzuten den hitz hau beti modu eta testuinguru berean erabiltzen ez den arren, ematen zaizkion erabilpen ugarien arabera edozein gertaera azaltzeko gaitasuna daukala ematen du.

Horrela, hain zehazgabea eta definitzeko zaila den kontzeptu honetara apurka apurka hurbiltzen joateko, berari lotuta joaten diren hiru elementu nagusiren aipamena egin beharra dago: berrikuntza teknologikoen sortutako unibertso berria, mundu mailan enpresa multinazionalak osatutako hedapena, eta maila desberdinetan azken hamarkadetan ematen ari den liberalizazio prozesua.

## 2. Globalizazioa definitzeko ahaleginetan

Azken hamarkadetan arlo politiko eta ekonomikoan gertatutako zenbait aldaketaren ondorioz, kapitalismoa inoiz baino itxura zabalagoa eta globalagoa hartzen ari den ideia hedatu da, globalizazio kontzeptuaren erabilpena errealitate honetatik datorrela esan daitekeelarik. Baina globalizazio izenaz ezagutzen dugun fenomeno hau aztertzerakoan aurkitzen dugun lehenengo eragozpena berau zehaztasunez zer den esatea da. Eta harrigarria bada ere, kontzeptu honen definizioan datza gai honetaz egiten den azterketaren gakoetako bat.

Izan ere, ikertzaile eta adituek oso era desberdinetan ulertzen dute hitz hau, eta bakoitzak honen inguruan egiten duen interpretazioaren arabera direnez batzuen eta besteen ondorioak, ez da batere harrizkekoa honetan, beste hainbat gaietan legez, ekonomilariak ados ez jartzea, eta globalizaziorik ote dagoen ala ez eztabaidatzerakoan iritzi bakarra ez egotea. Horrela, datu berak erabilita eta

errealitatearen analisi berdintsua eginez, batzuek globalizaziorik ez dagoela ondorioztatzen duten bitartean, besteek globalizazioa ia erabat gauzatu dagoen prozesua dela diote<sup>1</sup>. Horrexegatik hain zuzen ere, kontzeptu hau definitzeko lana, hau da, fenomenoaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren zehaztea, oso garrantzitsua dela esan beharrean gaude.

Kontzeptu horren definizio hertsia bat ematea edo berba honek zehaztasunez zer adierazten duen esatea lan erraza ez denez, fenomeno honekin elkarlotuta dauden hainbat kontzeptu eta ideia aipatuz hasi dezakegu oraintsu aipatutako hurbilpena. Era honetan, gai honetaz agertzen diren ideiak bi azalpen nagusiren inguruan kokatzen dira normalean: alde batetik, globalizazioa harreman kapitalisten hedapen gisa, eta bestetik, elkarmenpekotasan handiagoko egoeratzat hartuta.

## **2.1. Harreman kapitalisten hedapena**

Azken urteetan sistema kapitalistaren zabalitze prozesu bat gauzatu dela baieztatu daiteke, herrialde desberdinetan gertaturiko aldaketa gogorren ondorioz. 70eko hamarkadaren hasierako krisialdiaren ondorioz, monetaristen eta eskaintza-aren ekonomiaren jarraitzaileek bultzatuta (hauen artean Milton Friedman, Ronald Reagan, Margaret Thatcher, etab. aipatu behar direlarik), Ongizate Estatuaren desegituraketa prozesu bat zabaldu zen industrializatutako herrialde askotan, garai batean araututako ekonomiaren hainbat alor ostera ere desarautuz, eta kapitalismo mota merkatuzaleago bati bidea berriro irekiz. Ekonomilari ortodoxoen eskutik, eta krisialdiaren aurkako formulatzat hartuta, hortaz, azken hamarkadetan mende-baleko herrialde gehienetan bultzatutako defizit publikoa gutxitzearen aldeko politikak (pribatizazio ekimenak, babes sozialaren murriztapena...) edo lehiakortasuna sustatzearen aldekoak (lan merkatua malgutzeko burututakoak, besteak beste) aipatu beharko genituzke egoera honen adibide modura.

Alde horretatik, 30eko hamarkadaren hasieratik, eta gehienbat 2. Mundu Gerrateaz geroztik, gobernu askok Estatuaren esku hartzearen aldeko jarrera nabarmena izan bazuten ere, gaur egun ekonomia hauek kontrako norabidea hartu dutela esan genezake. Esperientzia bera, edo berdin antzekoa, izan dute Hirugarren Munduko hainbat herrialdek ere, doikuntza programen aplikazioaren bitartez, gehienetan nazioarte mailako erakundeek (Nazioarteko Moneta Fondoa eta Munduko Bankua-k) baldintzatuta, edo hobeto esanda, inposatuta. Honez gain, aipagarria da orobat planifikazio zentraleko herrialdeetan 1989. urtetik aurrera gertatutako kapitalismoranzko eraldaketa, bakoitzak prozesu hori bere era partikularrean egin badu ere.

Irizpide hauen guztien arabera, beraz, eta globalizazioa horien adierazle gisa ulertuz, azken urteetan harreman kapitalisten zabalitze dinamika bat areagotu dela esan beharra dago. Alegia, gaur egun orain dela hamarkada batzuk baino jende gehiago dago harreman kapitalisten pean. Eta honek guztiak zerikusi handia izan

---

1. Ez mutur batean ez bestean, eta batzuen eta besteen teoriak eta interpretazioak erlatibizatuz kokatzen dute euren burua zenbait adituk ere. Honen adibide modura, beste batzuekin batera J. Perraton-ek idatzitako "The Globalization of Economic Activity" izenburuko lana daukagu, eztabaidaren bi alde nagusiak globalizazioarekiko eszeptikoak eta "hyper-globalization" eskolakoak izendatzen dituztelarik.

du multinazionalen jarduerarekin, liberalizazio prozesuak testuinguru faboragarri bat osatu eta gero, hauek produkzio eta kontsumo harreman kapitalistak mundu mailara hedatu baitituzte merkatu berriak zabalduz, nazioarteko merkatuetan errentagarritasuna bilatuz, eta ekoizpen prozesuaren faseak herrialde desberdinetan kokatuz.

## 2.2. Elkarmenpekotasun handiagoa

Elkarmenpekotasun hau oso modu desberdinetan eta arlo askotan geratzen dela adierazita ematen du. Alde batetik, gobernu estatalak boterea galtzen hasiak direla esaten da, erabakiak hartzeko ahalmena, neurri handiago edo txikiagoetan, estatuen gaineko beste erakunde batzuetara pasatzen ari delako kasu askotan (subiranotasun ekonomikoaren galera hau argi ikus daiteke Europar Batasunaren kasuan, adibidez). Honez gain, nazioarteko merkataritza eta kapital fluxuei dagokionean, elkartrukak gero eta eragozpen eta traba gutxiagokoak direla ere esaten da, gobernuen arteko akordio desberdinetan oinarrituta, ekonomia bakoitzaren portaerak beste guztietan eragin handiagoa izango duelarik. Ekoizpen eta kontsumo ereduak gero eta elkarri lotuagoak omen dira gainera, eta produkzioaren inguruko erabakietan besteen estrategiak eta ekoizteko moduak gero eta gehiago hartu behar dira kontuan. Garraio eta komunikazioen alorrean gertatutako aurrerapenak ere ondasun eta zerbitzuen zein informazioaren elkartruketa erraztu egin dute, interkonexio handiagoaren alde jokatzuz.

Elkarrekiko loturaren areagotze hau EEBBetako hegemonia ekonomikoaren amaieran ere egon daiteke adierazita, Europa eta Japoniaren inguruan gertatzen ari den oso gune lehiakorren sorrerarekin batera. Ekoizpen eta kontsumo harreman kapitalistak gero eta hedatuago egoteaz gain, enpresa transnazionalen jardueraren bitartez gero eta elkarri lotuago ere daudela ematen du. Izan ere, enpresa hauen hedapena ematen denean merkatu berriak, lanesku merkea, edo lehengaiak eskuratu edo ekoizpen prozesua zati desberdinetan banatu nahian, hainbat ekonomien elkarmenpekotasuna ezinbestean areagotu egiten da.

“Brain storming” moduko dinamika bat eginez gero, oraintsu aipatutako bi ideia nagusiez gain, hauetako bakoitzari lotutako gertakari eta egoera ugari agertuko litzaizkiguke. Honi, edozein modutan ere, ezin izango genioke definizio esan, globalizazioaren kontzeptuaren inguruan lehenengo analisi gisa baliagarria izan badaiteke ere. Era honetan, beraz, bi ideia nagusi hauen arteko uztartzea ontzat eman daiteke errealitatearekiko hurbilpen zabal bat bilatu nahi izatekotan.

Hala eta guztiz ere, mota askotako definizioak<sup>2</sup> eman daitezkeela onartuz, baina aldi berean berba honen inguruan sortzen den anbiguitasunarekin amaitu guran, kontzeptua zehatzago definitzearen aldeko apustua egin behar delakoan nago. Ez da nire asmoa testuliburu batetik ateratako definizio moduko bat edo antzeko zeozer ematea, ez behintzat hauek izaten duten itxura formalari dagokionez, baina, aldiz, globalizazio hitzaren atzean dauden ideia nagusiak zeintzuk diren zehaztea behar-beharrezkoa dela uste dut.

---

2. Eztabaida honetan eta beste edozeinetan eztabaidagaiaren inguruko ulermena eta zehaztasuna bermatzeko beharra Helen O'Neil-en 1997ko lanean adierazten da. Globalizazioaren kontzeptuaz ematen diren interpretazio anitzen laburpen antzeko bat, beste batzuen artean, oraintsu aipaturiko artikuluan eta 1998an Koldo Uncetak idatzitakoan aurki daiteke.

Hasteko, globalizazio berba entzutean burura datorkigun lehenengo ideia da zerbait globalizatu egin dela, hau da, mundu mailan zabaldu egin dela. Mundu osoa da, beraz, erreferentzia modura hartzen den eremu geografikoa. Bigarrenik, kontzeptua are gehiago zehaztearren, galdetu beharko genuke ea zer den globalizatu dena; eta orain arte esandakoaren arabera, harreman ekonomiko kapitalistak direla mundu osora hedatu direnak erantzun beharra legoke. Eta azkenik, galdetu beharrekoa da orobat zer esan nahi dugun hedapen hitza aipatzen dugunean. Era simple batean esanda, erantzuna izan beharko litzateke, harreman ekonomiko horiek oso testuinguru librean gertatzen omen direnez, alegia, oso traba gutxirekin, merkatu desberdinetan gertatzen diren nazioarteko elkartrukeetan hazkunde nabarmena izan dela.

Era honetan, definizio edo dena delako honetan oinarrituta, saiatu behar dugu erantzun bat aurkitzen eztabaida honetan funtsezkoa den galdera baterako: mundu globalizatu batean bizi al gara? Edo beste modu batean galdetuta, harreman ekonomiko kapitalistak eta nazioarteko elkartrukeen hazkundera mundu osora zabaldu al dira? Edozein modutan ere, lan honetara pasatu baino lehenago, globalizazioaren fenomenoaren ardatz nagusiak diren teknologia eta transnazio-nalen eginkizuna aztertzea komenigarria litzateke.

### **3. Globalizatorako tresna eta eragile nagusiak**

Teknologiaren aldetik azken hamarkadetan lortutako aurrerapenak globalizazioaren bultzatzaile nagusitzat jo daitezkeen era berean, enpresa transnazionalak fenomeno honen agente nagusiaren egin beharra betetzen dute normalean. Berrikuntza teknologikoei dagokienez, garraio bide, komunikazio, eta informazioaren mugikortasunaren alorretan gertatutako aurrerapenak sekulako eragina izan dute globalizazio izenarekin ezagutzen dugun fenomeno honen garapenean. Arlo hauetan gaur egun dauden erraztasun eta aurrerapenekin mundua txikiagoa bihurtzen da, eta enpresa zein partikularrentzat merkantzia eta informazioaren eskurapena inoiz baino errazago eta arinago burutzen da. Horrela, distantzia fisikoak berdinak izanda ere, denboran eta dirutan neurtuta mota guztietako ondasun eta zerbitzuak inoiz baino hurbilago ditugu.

Multinazionalak beste edonork baino hobeto jakin dute posibilitate horiek guztiak erabiltzen. Negozioetarako erraztasunak zenbat eta handiagoak izan orduan eta esparru fisiko zabalagoa sortuko da, hornitzaileak, bezeroak, finantzaketa, edo produkzioaren fase desberdinak hurbilago izanik. Modu honetan, enpresa hauek aukera hobeagoak izango dituzte, euren ezaugarri bereziak aprobetxatuz, etekin handiagoak lortu ahal izateko.

#### **3.1. Aurrerapen teknologikoak**

Mundu mailako ekonomiaren zabaltzerako nazioarteko harremanen inguruko ezaugarri jakin batzuk betetzea ez da nahikoa, eta prozesu hori erraztuko duen azpiegitura antzeko bat egotea behar beharrezkoa da. Era honetan, azpiegitura honen rola teknologiak beteko luke, globalizatorako tresna nagusi bihurtuz.

Ahalegina egin dezagun, beraz, globalizazioa deritzon dinamika honetan gaur egungo teknologiak betetzen duen oinarritzko funtzioa ulertzeko. Alde batetik, aurrerapen teknologiko berriek ekoizteko ahalmena eta erritmoak gehitu egiten dituzte, masa kontsumoa eta masa ekoizpena ahalbideratuz. Eta honek zerikusi handia dauka kontsumitzeko ohiturei, edo saltzeko eta finantziatzeko metodoei dagokienez gero eta gehiago hedatzen ari den ustezko homogeneousunarekin. Bestetik, informatika, automatizazioa eta robotikaren erabilpenek lanaren produktibitatea modu ikaragarrian igotzea lortu dute. Eta honek ekoizpenaren antolaketan aldaketak ezartzeko aukera eman du, ekoizteko prozesuaren zatiketa erraztuz eta fase bakoitza herrialde desberdin batean kokatzeko modua eskainiz.

Komunikazioen aldetik ere burututako berrikuntzek kapitalen mugikortasuna eta jarduera ekonomiko ugariaren kontrola ahalbideratu dute. Sateliteek, faxak, posta elektronikoak, internetaren bitartez egindako telekonferentziek, komunikazioa ikaragarri merketu, eta datuen transferentzia izugarri erraztu dute. 1940-1970 epealdian nazioarteko dei telefoniko baten merketzea %80tik gorakoa izan zen eta 1970tik 90rakoan %90ekoa (PNUD, 1997). Honek guztiak enpresen arteko harremanak sustatu egin ditu bai ondasun eta zerbitzuen merkatuan, zein kapitalenean baina, batez ere, finantz-kapitalen kasuan.

Azkenik, garraio bideen alorrean nolabaiteko iraultzaren agerpena ere azpimarra daiteke, pisu eta bolumen handiko merkantziak leku batetik bestera gero eta arinago, errazago eta merkeago eramateko aukera eskaintzen delarik (erreaktore-hegazkinak, zama itsasontzi erraldoiak...). 1920-1990 tartean itsaso gaineko garraioak 2/3etik gorako merketzea ezagutu zuen. 1960-1990 tartean hegazkin konpainien zerbitzuen merketzea kilometroko %60koa izan zen (PNUD, 1997). Aldaketa hauek guztiek herrialde bakoitzeko abantaila konparatiboak aprobetxatzeko modua ematen dute, inbertsio eta produkzioaren mugikortasuna ahalbideratuz. Merkantziak garraiatzeko denboraren laburtzeak eta kostuen beherakadak, beraz, munduaren txikiagotzea ekarri dute, elkartrukeen hazkundea bultzatua izan delarik.

Esandakoaz gain badago beste ideia bat azpimarratzeko modukoa dena, teknologia eta globalizazioa lotzen dituelako: "teknoglobalismoa" delakoa. Baina zeintzuk dira hitz honen atzean irudikatzen diren errealitateak?

Lehenengo eta behin, berrikuntza teknologikoak nazioarteko merkatuetan gero eta gehiago ustiatzen ari direla adierazi nahi da kontzeptu honen bitartez. Horren adibide modura, puntako teknologia duten produktuen esportazioek (automobilak, hegazkinak, ordenagailuak, tresna zientifikoak...) mundu mailan duten joera hazkorra hartu beharko genuke kontuan. Izan ere 1970ean fakturgai guztien %12,2 alor honetakoa zen bitartean, 1989rako datua %20,5era pasatua zen (Requeijo, 1995). Beste aldetik, nahiko joera berdintsua daukagu nazioarteko merkatuetan erabiltzen diren patentei dagokienez. Hori egiaztatzeko OCDEko herrialdeetan den bertako eta kanpoko patenteen arteko proportzioa aztertzea besterik ez dago. Izan ere, 80eko hamarkadan patente atzeritarrek ezagututako gorakada oso esanguratsua izan zen, OCDEkoen batezbesteko hazkundea %7,2koa izanik, 70ekoan %0,9an besterik ez zegoen bitartean.

Bigarrenik, teknologiaren alorreko nazioarteko lankidetzak aipatu beharrekoa da. Espezialitate berdineko zientzilarien arteko harreman profesioanalak izatea oso praktika normala da, eta lankidetzak hau enpresen mundura ere hedatuta dagoela esan daiteke. Enpresek euren artean ezagutza konpartitzeko errezeloak dituztela pentsa daitekeen arren, errealitateak mota honetako lankidetzak zabala dela erakusten du. Jakina da lankidetzak kontraturik gabe ikerketa atzeratuta gera daitekeela, eta berarekin batera horretatik sortutako teknologia. Horrexegatik, produkzioaren arlo batzuetan (bioteknologia, material berriak edo informazioaren inguruko teknologietan) EEBB-eko eta Europako enpresen arteko lankidetzak akordioak, edo EEBB eta Japoniaren artekoak, adibidez, ohizkoak dira.

Azkenik, teknologia nazioarteratzeko beste modu bat berau sortzeko prozeduran gertaturiko eraldaketetan funtsatuta dago. Dinamika hau oso lotuta dago multinazionalak izan duten bilakaerarekin, teknologiaren sorrera enpresa hauen egoitza nagusietan ezezik, gero eta gehiago beraien sukurtsaletan ere gauzatzen joan direlako. Komunikazioen alorrean azkenaldi honetan izandako aurrerapenei esker, munduko beste puntatik teknologiagintzan gertatzen diren garapenak ikuskatu eta gainbegiratu daitezke. Eta honek aukera ematen du filialen arteko lana indartu, kostuak gutxitu eta inguru bakoitzak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzeko. 60eko hamarkadatik hasita, baina gehienbat 80koan, nazioarte mailan multinazionalak egindako bateratze ekimenak eta beste enpresen eskurapenak ere zerikusi handia dute teknologiaren erabilpenak eta eskuragarritasunarekin, askotan beste enpresek zuten ahalmen teknologikoak baliatzeko, mota honetako estrategiak burutu direlarik.

### **3.2. Enpresa transnazionalak**

Artikulu honetan harreman ekonomikoen analisia gehienbat ikuspegi kuantitatiboetatik jorratzen saiatuko bagara ere, esan beharra dago globalizazioari kapitalismoaren historiaren barruan nolabaiteko berezitasuna aurkitzen diotenak, gehienbat, kualitatiboki egindako azterketa bati esker heldu direla ondorio horretara. Hauen argudio nagusia da, elkartrukeetarako erraztasunak handitu diren heinean, transnazionalak egoera berri horretara joan direla moldatzen, ekoizpen sisteman aldaketa sakonak eragin dituztelarik. Oso ezaugarri desberdinak dituen dinamika batean sartuta ote gauden ala, teknologia eta liberalizazioak aldaketa batzuk sortu dituzten arren, kapitalismoak lehengo lepotik burua ote duen erabakitzea, hortaz, subjektibotasunez betetako lana dela ematen du. Arlo kuantitatiboan egindako azterketetan adostasun gehiegirik ez dagoela jakinik, neurtzeko zailak edo subjektiboak diren faktoreetan kokatzen badugu eztabaida, adostasun puntuak askoz ere urriagoak izango dira, zalantzarik gabe.

Bigarren Mundu Gerratearen osteko hazkunde garaietan multinazionalen interesak eta hauek sortutako herrialdearenak berdin antzekoak zirela esaten zen. Baina transnazionalen zabaltze dinamika martxan ipini eta gero, bi hauen arteko lotura, egon badagoen arren, sarritan entzuten dugu ez dela garai batean bezain begi-bistakoa. Hala eta guztiz ere, eta onartuz ekoizpen prozesua gero eta gehiago nazioartean osatutako mapari begira egiten dela eta enpresa hauen finantziaketa eta jabetza testuinguru horretan gertatzen dela gero eta gehiago, ez dirudi enpresa hauen filosofian eta portaeran sakoneko aldaketarik izan denik (ez

behintzat batzuek uste adinakoak), edo transnazionalen eta nazio-estatu bakoitzaren arteko loturak bat-batean desagertu direnik<sup>3</sup>.

Ez dago inongo zalantzarik, transnazionalak, definizioz, oztopo nazionalista guztiak gaudituko dituen trabarik gabeko testuinguru baten beharrea daudela, osterantzean ezin izango bailituzkete eskala ekonomiak, eta leku bakoitzeko abantaila konparatiboak aprobetxatu euren etekinak ahalik eta handien egiteko asmotan. Horregatik, arlo askotan ustez zabalagoa egiten ari den mundu honetan, enpresa hauek betetzen duten funtzioa garrantzi handikoa dela esan daiteke, prozesu honen agente nagusitzat izendatuak izan direlarik.

Ekonomi Teoriak diotenaren arabera, babes neurriak desagertzen doazen heinean, enpresa baten lehiakortasuna ez da geratzen jada herrialde bakoitzean diren ezaugarrien arabera, mundu mailakoan menpean baizik. Hipotesi hau azken muturrera eramanda, merkatuak gaur egun mundu osora hedatuta, alegia, erabat globalizatuta daudela esaten da. Era honetan, inongo arautegirik eta trabarik gabe, merkataritza ez litzateke nazioartekoa izango baizik eta enpresartekoa, eta egoera horretan mundu osoan hedatuta dauden transnazionalak jaun eta jabe izango lirateke. Hipotesi horrek, aldiz, geroxeago aztertuko dugun bezala, ez dauka oso islada argirik errealitatean.

Nolabaiteko zabaltzea gertatu denez, askotan entzuten dugu enpresek duten erabakiak hartzeko eremua jadanik ez dela nazio-estatuarena nagusiki, inbertsioak kokatzeko aukera mundu mailara zabaltzen ari omen delarik<sup>4</sup>. Honez gain, jakina da multinazionalak leku desberdinetan kokatzen dituztela euren inbertsioak leku bakoitzeko abantailak aprobetxatu ahal izateko. Baina hau guztia zenbateraino den berria planteatu beharko genuke, enpresa multinazionalen historian mota honetako adibide ugari aurki daitezkeenean. Hala ere, onartu beharra dago garraio eta komunikazioari lotutako teknologiaren alorrean izan diren aurrerapenek eta zenbait merkaturtan ezagututako liberalizazio prozesuek portamolde hauek ugaritu eta hedatu egin dituztela, produkzioaren faseak gero eta gehiago herrialde desberdinetan sakabanatuta geratzen direlarik.

Finantza-eraketaren munduari dagokionez, aldiz, nahiko orokorki onartuta dago nazioarteko dinamika argi bat dagoela zabaldua, hala enpresatik kanpoko

---

3. Askotan multinazionalen eta nazio-estatuaren arteko amankomuneko interesen adibide modura Charles Wilson-en hitzak aipatu ohi dira Eisenhower-en garaian EEBB-en eta General Motors-en interesak parekatu egin zituelako. Harrez geroztik denbora luzea igaro bada ere, azken egunetan, "Explorer" programaren inguruko gatazka dela eta, Bill Gates-en adierazpenak hartzea besterik ez daukagu Microsoft-en interesak eta EEBB-enak berdinak direla zioen argudio arriskutsua bezain interesatua entzuteko.

4. Ez dugu, edozein modutan ere, pentsatu behar inbertsioak gaur egun edozein lekutan eta inongo murriztapenik gabe kokatu daitezkeela. Izan ere hori da hain zuzen ere OMC delakoaren inguruan lparreko herrialde industrializatuak bultzatzen saiatzen ari direna, Inbertsioen inguruko Alde askotako Itunaren bitartez. Itun honen helburu nagusia nazioarteko inbertsioen alorrean erabateko askatasuna bultzatzea izango litzateke, estatu-nazioen eskubideak eta ahalmena inbertsio atzeritarren gaineko araudi bereziak sortzeko ukatuta geratuko liratekeelarik. Maila horretara heldu barik gaudenez, transnazionalen mugikortasuna eta askatasuna euren inbertsio produktiboak erabakitzerakoan erabatekoa denik ez dago esaterik. Horrez gain, garapen bidean diren herrialdeen aurkako jarrera egitasmo honen aurrean oso gogorra da eta horrela jarraituko du izaten, herrialde horien etorkizunari begira jokoan dagoena oso funtsezkoa baita.



baliabideen nola propioen aldetik. Finantziarioa behar izanez gero multinazionalak jatorrizko herrialdearen bankuetara, euren inbertsioak jarritako herrialdeenetara, edo munduko beste askotara jotzeko aukera dute. Alde horretatik, beraz, finantziaren arloko kapitalen mugikortasuna nabarmena dela esan genezake. Errenta finkoko tituluen salerosketari begira gaur egungo finantza merkatuek sekulako erraztasunak ematen dituzte finantziarioa hainbat herrialde desberdinetatik jasotakoa izateko. Kapitalaren jabegoaren aldetik ere, baloreen merkatuek gaur egun eskaintzen duten askatasunari esker beste horrenbeste izango genuke.

Azken hamarkadetan multinazionalak hartu duten garrantziaren adibide gisara, kopuruaren aldetik hauek ezagututako gorakada azpimarratu beharko genuke: 1960an 7.000 transnazional inguru zeuden bitartean, 1996rako datua 44.508koa zen (UNCTAD, 1997d). Merkataritzari edo teknologiaren transferentziari dagokionez, enpresa hauek mundu zabalean lortutako maila altua aipatzen da askotan. Edozein modutan ere, arlo honetan, beste hainbatetan bezala, aditu batzuen eta besteen arteko akordiorik ere ez dago. Izan ere, batzuek, adibidez, 80eko hamarkadaren erdi aldera enpresa hauek merkatu ekonomien produkzio osoaren %25-30, nazioarteko merkataritzaren %60 eta teknologia elkartrukeen %80 burutzen zutela adierazten dute (Requeijo, 1995).

Datu hauek bat etorriko lirateke askotan entzunda izango dugun ondoko ideia hauekin: multinazionalak munduko ekoizpen osoaren heren bat inguru dagokiela. Datu zehatzago bat hartuz gero zera aurkitzen dugu, nazioarte mailako 200 transnazionalik handienek 1995ean zuten fakturazioa munduko ekoizpen osoaren %31,2an zegoela kokatuta. Beste batzuek egindako estimazioen arabera, aldiz, proportzio hori %10aren inguruan egongo litzateke<sup>5</sup>. Nazioarte mailan multinazionalak duten garrantzia hainbestekoa ez dela adierazi nahi duen honako beste datu hau ere badaukagu: enpresa hauen balio erantsiaren %70 eta %75aren artean jatorrizko herrialdean ekoizten direla, arlo honetan eztabaida oraindino ere zabalik dagoela eta errealitate honen inguruko interpretazio desberdinak ematen direla agerian utziz (Hirst eta Thompson, 1996).

#### **4. Globalizazioa neurtzeko irizpide nagusiak**

Globalizazioaren ezaugarri nagusiak, tresnak eta eragileak sakontasunez aztertu eta gero, jo dezagun lan honen helburu nagusietako bat den galdera batzuentzako erantzunak aurkitzera. Lehenengo hurbilpen batean herritar xumearentzat globalizazio hitzak izan dezakeen esanahian oinarrituta, erantzun beharreko itaun bat mahaigaineratuta dugu: mundu globalizatuago batean bizi al gara? Alegia, harreman ekonomiko kapitalistak eta nazioarteko elkartrukeen hazkunde mundu osora zabaldu al dira?

---

5. Sutcliffe eta Glyn-ek 1999-an egindako azken lanean multinazionalen fakturazio horietan kontabilitate bikoitzarekin gertatzen den arazoa azpimarratzen da, enpresa hauen salmenten balioan barneratuta baitaude beste transnazionalak erositako lehengai eta osagarriak. Aditu hauek multinazionalen definizioaren inguruan egiten duten hausnarketa ere oso interesgarria da, enpresa hauek sailkatzeko irizpide batzuk edo besteak erabiliz gero, euren garrantziaren inguruko interpretazioak oso bestelakoak izan baitaitezke. Era honetan, autore hauen asmo nagusia gai honi buruz ematen zaizkigun datuak erlatibizatzea litzateke.

Galdera honi erantzun argi bat emateak ez dirudi lan erraza, ez behintzat hain nahasia izan daitekeen kontzeptu baten gainekoa denean. Horrexegatik nolabaiteko definizio bat ematen ahalegindu gara lehen, osterantzean ia ezinezkoa izango bailitzateke irizpide zehatz bat edukitzea eta, beraz, behar bezalako erantzun bat ematea aipatutako galderaren aurrean. Aurretik emandako zeozelako definizio horretan, askatasun baldintzen pean ematen diren harreman ekonomikoez edo trabarik gabeko nazioarteko elkartrukuez hitz egiten genuen.

Gauzak zehaztearren, horrela, ideia hauek adierazteko gero eta entzunagoa den, eta globalizazioarekin oso elkarlotuta dagoen berba bat erabiliko dugu aurreantzean, liberalizazioa alegia. Kontzeptu hau abiapuntutzat hartuta, hortaz, hasi gaitzen lehen planteatutako galdera mardulari zelan edo halango erantzun bat ematen, baina zehatzagoak diren beste zenbait galderaren bitartez. Horretarako, multinazional eta teknologiaren eragina aintzat hartuta, ekonomia batean gehienbat dauden hiru merkatuen jarduerak (ondasun eta zerbitzuena, kapitalarena, eta lanarena) aztertzea izango da gaur egun dagoen liberalizazio maila neurtzeko hartuko dugun irizpide nagusia, horrek lagunduko baitigu ulertzen zer motatako zabaltzeak gertatu diren, eta zein neurritakoak.


## 5. Liberalizazio prozesu bat eman al da?

### 5.1. Ondasun eta zerbitzuen merkatua

Bigarren Mundu Gerratearen ostean ezagututako hazkunde tasa altuek, 50eko eta 60eko hamarkadetan, batez ere, merkataritzaren gorakadarekin zerikusi handia dutela esan ohi da. Errealitate hori islatzeko era desberdinak daude, baina gehien erabiltzen denetako bat BPGrekiko esportazioek iritsitako proportzioa oinarritzat hartuta egiten dena da. Alde horretatik, mundu mailako datuak hartuz gero, emaitzek diotenaren arabera, ekoiztutakoaren gero eta portzentai handiagoa bideratzen da nazioarteko merkatuetara. BPGrekiko esportazio-ratioa 1950tik gaur egunera arte %10etik %15-20ra pasatu da (Perraton et alii, 1997).

Idea bera adierazteko beste modu bat merkataritzaren eta ekoizpenaren hazkunde tasak alderatzea litzateke. Kasu honetan ere emaitzek agerian uzten dute merkataritzaren hazkunde tasak produkzioak izandakoen gainetikoak direla (OMC, 1995).

Merkataritzaren hazkundea



\* merkataritzaren hazkundea / ekoizpenaren hazkundea (aldaketa portzentuala)

Lehenengo hurbilpen batean honek guztiak pentsarazi diezaguke liberalizazio ekonomiko nabarmena gertatu dela eta erabat gauzatuta dagoela. Sakonago aztertuz gero, aldiz, egindako galderari ñabardura asko egin dakizkiokeela frogatuko da.

Bigarren Mundu Gerratearen ostean merkataritzaren alorrean izandako hazkunde honek zerikusi handia dauka GATT<sup>6</sup> izeneko akordioaren inguruan sortutako muga-zergak baztertearen aldeko ekimenarekin. Izan ere, 1950ean arantzelak batezbeste %25aren inguruan egotetik, 1990ean %5era gutxi gorabehera pasatu ziren (Glyn eta Sutcliffe, 1995).

Badaude beste datu esanguratsu batzuk, aipatzeko modukoak direnak ere: 1947an inportatutako manufakturen batezbesteko arantzela %47koa zen, eta 1980ean %6koa, eta Uruguayko negoziaketa errondaren akordioak aplikatu eta gero %3ra jaitsi beharko litzateke (PNUD, 1997). Baina merkataritzaren inguruko negoziazio hauetan dena ez da liberalizazioa eta traba desagertze. Izan ere, arantzelek sortutako neurri babeszaleak bazterten ziren heinean, kasu jakin batzuetan salbuespenak ere egiten ziren, eta neurri ez-arantzelarioek gero eta leku handiagoa eskuratzen zuten herrialde industrializatuen artean besteen kompetentzia ekidin nahian.

Horrela, osasun eta garbitasunari buruz ezarritako legedi eta arautegiak, edo administrazio mailan sortutako hainbat eragozpenez gain<sup>7</sup>, oihalen inguruan sortutako "Multifibra" akordioa edo betidanik oso babestuta egon den herrialde industrializatuen nekazaritza sektorea aipatu beharko genituzke. Era honetan, herrialde industrializatuek euren sektore estrategikoak zelan edo halan babesteko moduak aurkitu dituzte, kanpoko kompetentziaren aurrean lehiakor bihurtzen ez diren bitartean behintzat. 1995ean nekazaritzaren arloan herrialde industrializatuek, batez ere, EEBB eta Europar Batasunak, laguntza publikoetan gastatutakoa 182.000 milioi dolarretara heldu zen (UNCTAD, 1997a). Japoniako nekazal arloa ere oso babestuta dago, euren arrozaren prezioa, batezbeste, beste herrialde ekoizleena baino bost aldiz handiagoa izanik (Requeijo, 1995). Gainera azpimarratzekoa da orobat merkataritzaren liberalizazioa motelagoa izan dela Hegoko herrialdeak lehiakorragoak ziren produktuen kasuan.

Edozein modutan ere, azken hamarkadetako erreferentzia hartuz gero, merkataritzaren alorrean dagoen zabaltze prozesu horretaz, gauzak ez daude hain argi. EEBBetako eta Japoniako datuen kasuan esportazioen joera hazkorraren amaiera ikusten da. Europako herrialdeei dagokienez, aldiz, esportazioen bilakaerak gorako bidean jarraitzen du. Baina denok dakigun bezala, herrialde hauen artean integrazio prozesu bat dago martxan Europa barneko elkartrukeak ugaltu dituen.

Beste era batera esanda, Europa barruko merkataritza alde batera utzita, esportazio eta BPGaren arteko ratioa %10,2koa izan zen 1996an (Japoniakoa %9

---

6. 1993an amaitutako Uruguay-ko Errondan OMC delako erakundea (Munduko Merkataritza Erakundea) sortzea erabaki zen, 1995etik aurrera, GATT izenekoaren ordezkoa bilakatuz, nazioarteko merkataritzaren inguruko arautegiaz harrez geroztik arduratzen delarik.

7. PNUD-eko 1997ko txostenean aipatzen den bezala, Uruguayko errondaren aurretik hesi ez-arantzelarioak garapen bideango herrialdeen esportazioen %18aren gainekoak ziren oraindik.

eta EEBBetakoa %8,2 izanik), agerian utziz Europako herrialdeen arteko merkatal harremanak gehitu egin direla, baina beste herrialdeekikoak EEBBen edo Japoniaren antzekoak direla (Zabalo eta Zurbano, 1998). Nazioarteko salerosketen ustezko azkartze dinamikari begira, beraz, ez du ematen aldaketa sakon handiegirik gertatu denik.

	1950	1973	1992
Britainia Handia	11,4	14	21,4
Alemania	6,2	23,8	32,6
Frantzia	7,7	15,4	22,9
EEBB	3	5	8,2
Japonia	2,3	7,9	12,4

Esportazio eta BPGaren arteko ratioa, portzentatetan adierazita. (Maddison, 1995)

Zerbitzuen sektoreari dagokionean, 1994an mundu mailako merkatal zerbitzuen proportzioa esportazio eta inportazio guztien %20aren inguruan zegoen kokatuta (OMC 1996). Horrela, azken urteetako hazkundera azkarra izan bada ere, agerian dago merkataritzaren bilakaera osoan arlo honek duen garrantzia merkantziarena baino askoz txikiagoa dela, orain arte merkantzien kasuan erabilitako argudioen baliagarritasuna bere horretan mantentzen delarik.

## 5.2. Kapitalen merkatua

Kapitalen fluxuei dagokienez, mugikortasunaren aldetik egon den bilakaera guztiz paregabetzat jotzen da. Diru mugimendu hauen helburu nagusia etekinak maximotzea da, eta hau bi era nagusitan egin daiteke: bata finantzen arloan, hau da, arlo produktiboan inongo kontrolik izateko asmorik gabe, eta bestea produkzioa jardueratik etekinak eta kontrola lortzeko helburuarekin inbertituz. Lehenengoetatik hasita, finantza aktiboetan egindako inbertsio hauek epe luze zein laburrekoak eta titulu publiko zein pribatuetan gauzatuak izan daitezke. Nazioarteko kapitalen merkatuek izandako hazkundera oso aipagarria izan da 70eko hamarkadatik aurrera, baina azken urteetan bereziki dibisen eta interes tasen gorabeherak direla eta diru gehiago bideratu da produktiboak ez diren inbertsio hauetara.

Kapital mota hauen inguruko datu batzuk har ditzagun, azken hamarkadetan hauek izan duten bilakaera behar bezala aztertu ahal izateko:

- 70eko hamarkadaren erdi aldetik 1996. urtera arte ganbio merkatuen eguneroko negozio bolumena 1.000 milioi dolarretik 1,2 bilioi dolararrera pasatu zen (PNUD, 1997), mundu mailako merkataritzari dagokion kopurua 50 aldiz txikiagoa izanik (Perraton et alii, 1997)
- 1973an nazioarte mailan emandako kredituen kopurua 175 bilioi dolarrekoa izan zen bitartean, 1990ean 3.430 bilioitara heldu zen. Beste era batera esanda herrialde industrializatuen BPGaren %5etik %20ra igaro zen (IMF, 1992).
- Nazioarteko bono eta obligazioen stocka 260 bilioi dolarretik 1982an, 1.400 bilioitara 1990an pasatu zen, alegia, herrialde industrializatuen BPGren %3tik %8 pasatxora (IMF, 1992).

- 1980-90 tartean finantz aktiboetan egindako nazioarteko eragiketek ezagutu zuten batezbesteko urteko hazkunde tasa %28koa izan zen, eta EEBBetako eta Japoniako tituluekin atzeritarrek egindako transakzioek ondoko joera hau izan dute:

	1970	1980	1990
EEBBetakoak	3	9	93
Japoniakoak	2	7	119

BPGaren portzentai gisa (Sánchez, 1995a).

Baina kasu honetan ere zehaztasun batzuk egin beharrean gaude. 1960tik nazioarte mailako kapital mugimenduetan hazkunde handiak izan dira, baina ez dugu ahaztu behar abiapuntua zein zen, alegia, Bigarren Mundu Gerratearen osteko egoera, kapitalen mugimenduen gaineko kontrol zorrotzak ezarrita zituena. Hala eta guztiz ere, 80ko hamarkadara arte kapitalen merkatuak nahiko babes-tuta eta araututa egon dira, baina hortik aurrera estatu bakoitzean ezarrita zeuden traba asko desagertu egin ziren kapitalen merkatu globalizatu bat agertu omen delarik.


Dinamika honen hasiera 1973an izan zen, Bretton Woodseko konferentzian ezarritako ganbio tasen sistema bertan behera geratu zenean. Baina hortik aurrera finantza sektorean ematen diren tituluei lotutako berrikuntzek, komunikazioen inguruko aurrerapen teknologikoei eta desarauketarako neurriek zeresan handia dute zabaltze prozesu honetan.

Mota desberdinetako kontrolak eta arauak egon ziren bitartean finantza erakundeek babes handia zeukaten kanpoko erakundeen aurrean, etekin oligopolikoak lortu ahal izanez. Baina 80ko hamarkadan kontrolak desagertzen hasi ziren eta finantza erakundeek titularizazio prozesu bat ezagutu zuten, lehen kredituen bitartez gehienbat eskaintzen zuten finantziazioa, tituluen bidez bideratzen hasi zirelarik. Azken urteetan finantza merkatuek bizi izandako hazkunde oso nabarmena izan da, baina, honek ere badauka bere alde txarra. Izan ere, inbertitzaile handiek (inbertsio fondoek, pentsio fondoek, aseguru etxeek...) erabiltzen dituzten epe laburreko irizpideak direla eta, merkatu hauetan joera ezegonkorra nagusitzen dira sarritan<sup>8</sup>, globalizazioak eskaintzen omen dituen abantailak kasu honetan identifikatzeko zailak suertatzen direlarik. Nazioarteko Moneta Fondoak ere epe laburreko kapital kopuru handien mugimenduek efektu ezegonkortzaileak sor ditzaketela onartzen du (FMI, 1997).

Nazioarte mailan burutzen diren inbertsio zuzenei dagokienez, merkataritzaren kasuan bezala, baina joera hori are gehiago sakonduz, hazkunde tasak produkzioak izandakoaren gainetik kokatzen dira. Baina denboran zeharko azterketa honek zera adierazten du, inbertsio atzeritar zuzenen hazkunde positiboa izan

8. Amaitu barik dagoen hamarkada honetan bertan arlo honetako hiru krisialdi indartsu izan dira: Europako Moneta Sistemaren ingurukoa 1992an, Mexikoko ekonomian 1994an ondorio larriak izan zituena, eta 1997. urtearen amaiera aldera Asiako ekialdeko zenbait herrialde astindu zituena.

bada ere 80ko hamarkadara arte, hazkunde tasa horiek joera beherakorra izan dutela 60ko hamarkadako datuekin konparatuta. Hala eta guztiz ere, inbertsio atzerritar zuzenen igoera ekoizpen eta merkataritzaren gainekoa izan da, ekonomiaren arlo honetan jarduera nazioarteratzeko ganua agerian geratzen delarik.



80eko hamarkadaren bukaera aldera, aldiz, hazkunde tasek hasi zuten berriro euren gorako bidea aurreko epeetan baino erritmo azkarragoetara helduz. Horrela, 1983-90 epealdian IAZaren fluxuek %34ko urteko hazkundea ezagutu zuten, mundu mailako merkantzien merkataritzari zegokion datua %9koa zen bitartean (Hirst eta Thompson, 1996). Era berean, 1985-95 epealdian inbertsio atzerritar zuzenen fluxuak 60.000 milioi dolarretik 315.000 milioira pasatu ziren, alegia, hamar urtetan bost aldiz handiagoak egin ziren (OMC, 1996).

Orain arte kapitalen merkatuaz esandako guztiaren ondorio modura zera baieztatu daiteke, nazioarte mailan kapitalen mugikortasuna gehitu egin dela, eta jarduera ekonomikoren bat globalizatuta egotekotan hori kapitalena izango litzatekeela. Edozein modutan ere, geroxeago azalduko dugun legez, globalizazioaz baino herrialde jakin batzuk arlo honetan bizi izan duten nazioarteratzeko joeraz hitz egitea egokiagoa litzateke.

### 5.3. Lan merkatua

Atal hau hasi baino lehenago liberalizazio hitzaren atzean dagoen ideietako bat aipatzea komenigarria litzateke, lanekuaren elkartrukeak aztertzerakoan funtsezkoa izan baitaiteke. Neoklasikoen eta orokorrean merkatuaren aldekoen pentsaera ekonomikoan zutabe nagusi bat dago, baliabideen esleipen egokirako ezinbestekoa dena, alegia, produkzio bideen erabateko mugikortasuna. Ematen du, hortaz, horixe dela liberalizazio ekonomikoak bultzatu eta sustatu nahi duena eraginkortasunaren argudioa etengabe erabiliz eta merkatuaren funtzionamendu egokia bermatu guran. Lan merkatuaren kasuan, aldiz, arau nagusi hau ez aplikatzeak ez dirudi buruhauste handiegirik ematen dienik ekonomilari merkatuzale hauei.

Oraintsu aipatu bezala, merkantzien eta kapitalen mugikortasuna, zenbait ñabardura eta salbuespen aipatu behar direlarik, gero eta handiagoa bihurtzen ari da azken hamarkadetan, estatuaren mugak gaintuz. Hala ere, lanaren inguruko

azterketa batek ezin gaitu ondorio berdinetara eraman. Lanekuaren mugikortasunari dagokionez, bi joera kontraesankor gertatzen ari dira gaur egun, bata nazio-estatu bakoitzaren barruan eta bestea nazioartean. Izan ere, oso ohizkoak bihurtzen ari dira lan merkatua liberalizatzeko politikak herrialde gehienetan, kalera-tzeak erraztuz, arautegiak arinduz eta Ongizate Estatuak garai batean eskaintzen zuen babesak gutxituz.

Hau guztiaren atzean lan merkatuaren malgutasunaren alde jokatu eta mugikortasunerako traba eta eragozpenak desagertarazteko ahalegin gogotsua dagoela esan daiteke. Baina herrialde bakoitzeko mugen barruan baliagarria omen den ideia honek, harrigarria bada ere, indarra galtzen duela ematen du mundu osora zabaltzea proposatzen denean, edo behintzat ez dirudi printzipio hauek nazioarte mailan martxan jartzeko borondate politiko handiegirik dagoenik.

Arlo teorikoan egoera kontraesankor hori ulertzen lagun dezakeen arrazoizko argudiorik aurkitzea ezin da oso lan samurra izan. Jarrera hori justifikatzeko, aldiz, bereziki arrazoi politikoak erabiltzen direla onartzen bada, kontraesan horren muina ulergarriagoa egiten da. 70 eta 80ko hamarkadetan Iparreko herrialdeetan nolabaiteko aldaketarik egon bada inmigrazio politikaren inguruan, hau askoz ere modu zorrotzagoan kontrolatu eta eragozteko izan da. Baina ez gara edozein motatako inmigrazioaz ari baizik eta kualifikazio gutxikoaz, hau da, Hirugarren Mundua delakotik irtenekoaz. Izan ere, merkatu honen baldintzak atzeritarrekiko goitik behera aldatzen dira kontuan hartzen ditugun langileak euren espezialitatean kualifikazio handikoak direnean, kirolari profesionalak, espezializatutako injenieriak, edo ospe handiko ikertzaileen kasuan eragozpen guztiak desagertzen direlarik. EEBBetan, adibidez, kasurik nabarmenena izanik, 1995ean behin-behineko langileen sarrera osotik %83,9 kualifikatutako lanekuari zegokion (OECD, 1997).

Globalizazio berbari itsatsita doan ekonomiaren hainbat arlotan gertatzen omen den zabaltze prozesutik, beraz, kasu honetan ezer gutxi dagoela esan beharra dago. Gibraltar ingurutik heltzen zaizkigun albiste tamalgarriak jasotzea besterik ez da behar lanaren nazioarteko mugikortasuna munduko biztanleriaren gehien-goarentzat ezerezean geratzen dela ikusteko, hainbat herrialdetan indarrean dauden legedi zorrotzen eraginez. Hala eta guztiz ere, ondorio honekin ez dute aditu guztiek bat egiten, baina honen inguruko eztabaidari geroxeago helduko diogu.

## **6. Liberalizazio prozesu hori gertatu denean, mundu osora zabaldu al da elkartrukeen hazkundea?**

### **6.1. Ondasun eta zerbitzuen merkatua**

Munduko zonalde desberdinak hartuta, eta batzuen eta besteen arteko alderaketa eginez gero joerak nahiko bestelakoak direla ikus daiteke. Herrialde industrializatuen artean ditugun garrantzitsuenek (Japonia, Europa eta EEBB), adibidez, nahiko joera antzekoa izan zuten mendearen hasieratik Bigarren Mundu Gerratearen osteko urteetara BPGarekiko euren esportazioek beherako bidea hartu zutelarik, 50.etik aurrera suspertzen joateko. Bilakaera hau, aldiz, ez dator bat Hegoaldeko hainbat herrialdek bizi duten egoerarekin, Latinoamerika eta Afrikako kasuan, besteak beste, azken hamarkadetan mundu mailako merkataritza osoarekiko gero eta portzentai txikiagoa burutzen dutelarik.

Honez gain, esportazio horiek zein norabide hartzen duten azertu beharra dago, hau da, merkataritza harreman hauek mundu osora zabaltzen den fenomeno baten adierazleak ala erregio mailako blokeetan osatutako dinamika batenak diren jakitea premiazkoa da. Datu batzuk aipatzea nahikoa izan daiteke errealitatearekin bat datorren hipotesia bigarrena dela egiaztatzeko.

Hasteko aipatzekoa da merkataritza ekonomia industrializatueta kontzentratuta dagoela, esportazioen %68,7 eta inportazioen %67,3 herrialde hauen esku geratzen direlarik (UNCTAD, 1997b). Munduko hiru zonalderik aberatsenen (Iparramerika, Europako mendebaldea, eta Japonia) bezerorik handienak nazioarte mailan, beste herrialde industrializatuak dira, hiru kasuetan %50 baino gehiago herrialde hauek osatzen duten taldearekin euren produktuak elkartrukatzuz: %69, %84 eta %57, hurrenez hurren (Glyn eta Sutcliffe, 1995). Baina datu hauez gain, komenigarria da aipatzea hiru bloke nagusi horiek zenbateko merkataritza maila duten bloke bakoitzaren barruan. Izan ere, zenbaki hauek hartuta kontzentrazioaz hitz egin beharrean gaude osterera ere: Iparramerikako merkataritza osotik %36 zonalde honen barnean gauzatzen da, Mendebaldeko Europako totaletik zonalde honetan %68,3 burutzen da, eta Asiaren kasuan datua %51,9an dago (OMC, 1997).

Lehen ikusitakoaren arabera, herrialderik aberatsenek, alegia, OCDEren inguruan biltzen direnek, ekoiztutakotik gero eta proportzio handiago bat esportatzen dutela ondorioztatu dugu. Eta orain aztertutako datuen bidez aurrekoarekin osagarria den beste ondorio bat atera dugu: nazioarteko merkatal harremanak herrialde jakin batzuetan kontzentratuta daude, esportazio eta inportazio gehienak beraien artean egiten direlarik. Zerbitzuen arloari dagokionez, kontzentrazioarako joera nagusitzen da halaber, 1995ko merkatal zerbitzuen 15 saleroslerik handienak harturik, hauek esportazio guztien %72 eta inportazioen %69 biltzen zutelarik (OMC, 1996).


Hirugarren Mundua deritzonari begira, lehen aurreratu dugun moduan, ondorioak nahiko bestelakoak direla esan behar da. Honen guztiaren atzean egituraren aldetiko arazo larria agertzeaz gain (lehengaiak galdutako interes erlatiboa manufakturen aurrean), badago baita ere 1973eko krisialdiak Hirugarren Munduko herrialde askotan izandako ondorio kaltegarrien eragina. 60ko hamarkadatik aurrera nazioarteko merkataritzan pisu gehien dituzten produktuak, garai batean ez bezala, manufakturgaiak dira, euren igorle eta erosle nagusiak Iparreko herrialde industrializatuak izanik. Era honetan, mende honen hasieran merkataritza harremanak oraindik tradizionalak baldin baziren, alegia, sektoreartekoak, batzuek lehengaietan eta besteek manufakturetan espezializazioa zutelarik, gaur egun merkataritza elkartrukoen proportziorik handiena sektorebarrukoa da.

Datu hauek guztiek zerbait uzten badute argi zera da, azken 50 urteetan nazioarteko merkataritzari dagokionean, herrialde industrializatuaren artean homogeneotasunerako prozesu bat gertatu den bitartean, Hirugarren Mundua delakoaren barruan gero eta alde handiagoa gauzatzen ari dela euren artean. Izan ere, mundu mailako merkaturaren zabaltze honetan herrialde hauetatik gutxi batzuk besterik ez dute parte hartu, Industrializazio Berriko Herrialdeak deritzenek alegia, eta horren adibiderik onena ondoko datu hau: Korea, Singapur, Hong Kong eta



Taiwanen artean gutxi gorabehera garapen bideango ekonomien manufakturgai guztien esportazio erdia burutzen dute.

### Munduko esportazioen portzentaia




Iturria: UNCTAD, 1997

Izan ere, erdaraz “NPIs” izena duten herrialde hauen esportazioak beste industrializatu guztienekin batuz gero, 1995ean esportazio guztietatik zegokien portzentaia %85ekoa zela ikusten dugu, 1970ean datua %76an geratzen zen bitartean. Asiako lau herensugeek ezezik Malasiak, Tailandiak eta azken urteetan, batez ere, Txinak nazioarteko merkataritza osoarekiko dagokien portzentaiari begira nahiko gorakada nabarmena ezagutu dute. Bestaldetik, aldiz, “herrialderik atzeratuenak” izenekoei (Sahara azpiko herrialde asko, Asiako batzuk eta Latinoamerikako baten bat, guztira 48) 1970ean mundu mailako esportazioen %1,7 zegokien, 1980ean %0,7, 1995an datua %0,4ra jaitsi zelarik (UNCTAD, 1997b).

Gero eta argiago geratzen ari dena, hortaz, ondoko hau da: “Hirugarren Mundua, Hegoa, edo Garapen bidean diren herrialdeak” kontzeptuetan barnerratuta dauden estatu-nazio guztien artean heterogeneotasuna dela nagusi. Asiako herensugeekin batera bazeuden bi herrialde mota 70eko hamarkadan zehar nazioarteko merkataritzan pisua irabazi zutenak: petrolio esportatzaileak, eta 80eko hamarkadatik aurrera “larriki zorpetutakoak” deritzenak.

Petrolio esportatzaileek ondasun honen prezioaren gorakadarekin batera munduko esportazioetan pisua irabazi zuten. Harrez geroztik, berriz, egoerak okerrera egin du. Larriki zorpetutako herrialdeentzat, gehienak latinoamerikarrak izanik, inportazioak dezente igo ziren 70eko hamarkadan, 1982tik aurrera, hau da, kanpo zorraren krisialdiak eztanda egin eta gero, mundu mailako inportazioetan garrantzia galduz. Azkenik, trantsizioan dauden herrialdeak ditugu, alegia, garai bateko Europa aldeko planifikazio zentralekoak, Sobiet Batasun ohikoak barne. Orain gutxiago salerosten dute euren artean eta gehiago mendebaldeko Europarekin, baina guztira lehen baino askoz proportzio txikiagoa dute nazioarteko merkataritzan.

### Trantsizio herrialdeen merkataritza



Hau guztiaren ondorio gisa, merkatu ekonomien eremua inoiz baino zabalagoa den historiaren une honetan, nazioarteko merkataritzari dagokionez kontzentrazioa eta polarizazioa ugaltu egin dira, begien bistan utziz gutxiengo batek geroz eta pisu handiagoa duela eta gehiengoa gero eta baztertuago eta menpekoago geratzen ari dela. Errealitate honek, beraz ez dirudi globalizazio hitzetik atera daitekeen ideia nagusiarekin antz handiegirik duenik.

## 6.2. Kapitalen merkatua

Finantzen merkatuaren kasuan, erraz ikustekoa denez, mugimendu gehienak Iparreko herrialde industrializatueta ere kontzentratzen dira, joera honen salbuespen apurrak Asiako ekialdeko zenbait finantza-plaza edo Latinoamerikako gutxi batzuk direlarik. Finantza merkatuak berez nahiko ezegonkorak badira, zirkuitu tradizioaletatik kanpo geratzen diren apur hauek krisialdien eraginak era larriagoan pairatzen dituzte, neurri handi batean konfidantzan oinarrituta dagoen jarduera honetan, eurak horrelakorik eskaini ezinean ibiltzen direlako sarritan.

Beste aldetik, inbertsio zuzenei dagokienez, aipatzekoa da hauek Iparreko herrialdeetan kontzentratuta egon direla eta daudela. Merkataritzaren kasuan lez, herrialde industrializatueta egindako inbertsio atzerritar zuzenaren gehiengoa (hiru laurdenak gutxi gorabehera) beste herrialde industrializatueta burutu dela esan daiteke.

Herrialdeak	1972-79	1980-1985	1986-92
<b>Industrializatuak</b>			
Sarrerak	76,3	67,8	81,5
Irteerak	99,4	97,3	96,3
<b>Garapen bidean direnak</b>			
Sarrerak	23,7	32,2	18,5
Irteerak	0,6	2,7	3,7

Kopuru osoaren portzentaiak (Sánchez, 1995b)

Garapen bidean diren herrialdeetara zuzendutako inbertsioei dagokienez, azken hamarkadetan izandako eboluzioa ez da oso onuragarria izan. Izan ere, 1975ean herrialde hauek inbertsio atzeritar zuzen osoaren %29,3 eskuratzen bazuten, 1985ean datua %23,3ra jaitsi zen, 1988-92 epealdian %21era iritsi zelarik (UNCTAD, 1996). Nazioarteko inbertsioen banaketa, beraz, ez da oso orekatua ez mundu mailan ezta garapen bidean diren herrialdeen artean ere. Gehiengo herrialde industrializatu bakan batzuetara, eta baita ere industrializazio berriko Latinoamerikako eta Asiako ekialdekoetara, Txina barne, zuzentzen da. Errealitate hau islatzeko beste datu adierazgarri bat hemen daukaguna da: 1981-91 tartean EEBB, Kanada, Europar Batasuna, EFTA, eta Japoniak IAZ-en %75 erakartzen bazuten, herrialde hauei aldagai honi begira dauden Hirugarren Munduko hamar indartsuenak gehituz gero (Singapur, Mexiko, Txina, Brasil, Malasia, Hong Kong, Argentina, Tailandia, Egipto eta Taiwan), datua kopuru osoaren %91,5era pasatzen da (Hirst eta Thompson, 1996).

Latinoamerikaren kasuan, kanpotik heldutako inbertsioak Argentina, Brasil eta Mexikora (manufakturgaietan), Txile eta Perura (meatzaritzan), edota Venezuela eta Kolonbiara (petrolioan), batez ere, daude zuzenduta; baina 80eko krisialdiarekin batera fluxu hauek behera egin zuten, merkatu handi hauen barneko eskaria gutxitu eta eurekiko kapitalak zuen interesa desagertu egin zelako. Asia aldean barneko kontzentrazioa egoteaz gain, garapen bideango beste ekonomia guztiekiko ere nahiko metaketa adierazgarria gertatzen da. Horrela, 1996an Hirugarren Mundua delakora zuzentzen ziren inbertsio atzeritar zuzen guztietatik 2/3 Asian pilatzen ziren (UNCTAD, 1997d).

Inbertsio hauek, hortaz, herrialde jakin batzuetan kokatu dira, horretarako irizpideak herrialde bakoitzaren ezaugarrien arabera izan direlarik: Txina, Indonesia eta Tailandian kapitalak merkatu handi hauen eskaria bilatzen du; Hong Kong, Malasia, Singapur, Taiwan eta Hego Korean esportazioetarako manufakturrek duten kostu merkea da erakargarritasuna sortzen duen faktorea; Indonesia edo Malasian, berriz, petrolio eta beste baliabide natural gehiago dira inbertsio zuzenetarako pizgarriak. Bereziki azpimarratzekoa da Txinaren kasua, gaur egun garapen bidean diren herrialdeen artean Inbertsio Atzeritar Zuzen (IAZ) gehien jasotzen duena bera izanik.

Afrikari dagokionean, kanpoko inbertsio zuzenen kontzentrazioa oso altua da orobat (Argelia, Kamerun, Egipto, Nigeria eta Tunisiak kontinente osoaren %90 eskuratu zuten 1975-85 bitartean) dirua erakartzeko arrazoi nagusia petrolioaren ustiapena izanik. 1995ean kontzentrazioarako joera horiek mantentzen ziren, Nigeria eta Egipto IAZ-en jasotzaile nagusiak izanik, euren atzetik Maroko, Tunisia, Angola eta Ghanak osatutako beste multzo bat zeterrelarik. Afrikako gainontzeko herrialdeetan mota askotako sustagarriak eskainita ere, egiturazko krisialdi sakonean murgilduta dagoen kontinente honen gehiengo baterako inbertitzaile atzeritarren aurrean erakargarria bihurtzea gero eta lan neketsuagoa bilakatzen ari da. Errealitate honen adierazgarri gisa, honako datu hauek ditugu: 1986-90 tartean Afrikari zegokion garapen bideango herrialdeen IAZ-aren portzentaia %11koa izan zen, eta 1996rako proportzio hori, berriz, %3,8ra besterik ez zen heldu (UNCTAD, 1997d).

### 6.3. Lan merkatua

Aurrerago adierazi bezala, jarduera ekonomikoaren esparru honetan ez da liberalizazioaren aldeko joera argirik gertatu azken aldi honetan. Salbuespen bakarra Europar Batasunaren inguruan merkantzia, kapital eta baita ere lanekuaren mugikortasuna, teorikoki behintzat, bermatzen duten hitzarmenen kasua litzateke. Baina ez dugu ahaztu behar, hau nazio-estatuaren gaineko bloke erregionalen inguruan eraikitzen ari den egitasmo jakin batean kokatu behar dela eta, beraz, joera orokor eta zabal baten adierazgarri modura ez duela balio.

Nazioarteko lan merkatuaren mugikortasun falta, teoria ekonomiko merkatuzalearen koherentziari kalte egiteaz gain, etikoki kritikagarria ere badela esan daiteke. Lanekuaren mugikortasuna nazioartean oso era zorrotzean kontrolatuta badago ere, kale mailan jendeak nahiko logikotzat hartzen du egoera hori. Testuinguru hurbilago batean, aldiz, langileen mugikortasunerako trabak jartzea lotsa emateko modukoa irudituko litzaziguke. Alegia, imajina dezagun eskualde edo hiri jakin batzuk sortzen direla estatu-nazio baten barruan errenta maila altua dutenentzat eta beste guztiei sartzea eragotzi egiten zaiela, edo oso baldintza zorrozpetan baimendu. Printzipioz, inongo gizartek ez luke onartuko mota horretako diskriminaziorik, eta beste herrialde guztien sostengua edukiko luke gainera jarrera honek. Egoera hori planeta osoa erreferentzia gisara hartuta planteatzen dugunean, berriz, oso harrigarria bada ere, ez bide diogu honi ezelango eragozpen etikorik ikusten.

### 6.4. Multinazionalen eta teknologiaren hedapena

Enpresa transnazionalen sorrera, erraz aurrirustekoa denez, oso zentralizaturik dago Iparreko herrialde jakin batzuetan. Izan ere, herrialde industrializatu nagusietan (EEBB, Frantzia, Alemania, Japonia eta Erresuma Batua) sortutako transnazionalak inbertsio atzerritar zuzen guztien %70 burutzeaz gain, mota honetako enpresa guztien ia erdia osatzen dute (Sánchez, 1995b). Periferian sortutako multinazionalak ere gero eta ugariagoak bihurtzen ari dira, baina prozesu hau batez ere "NIPs" delakoetara, hau da, Industrializazio Berriko Herrialdeetara<sup>9</sup> mugatuta geratzen da. Herrialde aberats jakin batzuetan sortzen dira transnazionalak, beraz, oraingoan ere kontzentrazioa eta bazterketaren arteko dikotomia nagusi izanik.

Teknologiari dagokionez, lehenago aztertutako ezaugarriak eta dinamikak oso lagungarriak izan daitezke merkantzia eta bitartekoa batera den ondasun honen mundu mailako banaketa, eta bere merkatuen itxura, nondik norakoak diren ulertu ahal izateko. Hori dela eta, teknologia maila altuko merkatuetan izaera oligopolikoa ezaugarri nagusia dela ulerterraza den bezala, edonork imajinatu lezake banaketa geografikoa ere ez dela batera orekatua.

Teknologiaren hedapen eta transmisioa OCDEko herrialdeetan oso sakona izan den bitartean, Hegoaldekoetara ia ez da heldu, "industrializatu berriak" deritzen ekonomien salbuespenarekin. Teknologiaren transmisioa nazioarteko inbertsio zuzenei oso lotuta egon denez, hauek 80ko hamarkadan oso gorakada

---

9. Kasu honetan Hego Korea, Brasil, Txina, Hong Kong, eta Taiwan dira enpresa transnazional gehien sortu dituztenak garapen bidean diren herrialdeen totaletik %76 osatuz 90eko hamarkadaren hasieran.

nabaria izan bazuten ere, OCDEko herrialdeek sortuta eta horietara zuzenduta egon ziren gehienbat. Era honetan, inbertsio hauen eraginez, baina baita euren arteko lankidetzeta eta konkurrentziari esker, herrialde hauen artean ahalmen teknologikoa apurka-apurka parekatzen joan da.

Oraintsu esan bezala, ezin ditugu prozesu honetatik kanpo utzi azken hamarkadetan nazioarte mailan hain lehiakorrak izan diren "NIPs" izenekoak. Horrela, arlo teknologikoan aurrerapenik aipagarrienak izan dituztenak, batez ere, "Lau Herensugeak", India, Brasil, Malasia, Tailandia, Filipinas eta Indonesia izan direla azpimarratu beharra dago. Hegoaldeko gainontzeko herrialdeetan, aldiz, egoera oso bestelakoa da, Latinoamerikako herrialde askotan teknologiaren hedapena motela izanik eta Afrikako gehienetan batere gabea. Egoera honek gaur egun ekonomia batzuen eta besteen artean gertatzen diren alde ikaragarriak agerian uzteaz gainera, etorkizunean bazterketa horretatik ateratzeko ahalmena nabarmenki murrizten du.

## **7. Tamaina horretako elkarmenpekotasun eta zabaltzearen esperientzia berria ote?**

Nazioartera zabaltzeko joera, kapitalismoaren sorreratik bere hedapenerako beharrezkotzat hartu den tresna nagusietako bat izan da. Izan ere, mende honetako gerren arteko tartea kenduta, ziurgabetasuna eta nazioarteko merkataritza harremanen beherakada nagusi izan zirelako, kapitalismoak nazioartera jotzeko izan duen grina konstante bat izan dela esan daiteke. Gaur egun, berriz, sistema hau etapa berri eta desberdin baten barruan dagoela ulertarazi nahian, internazionalizazioaren ordean, globalizazio hitza eransten diogu gure hiztegi partikularrari. Eta kontzeptu berri honekin batera datorkigun ideia ondokoa hau da, inoiz egon ez garen egoera baten aurrean gaudela.

Oraintxe ikusiko dugun bezala, atzera begirako konparazioak egiten direnean Lehenengo Mundu Gerratearen aurreko hamarkaden egoera hartzen da erreferentziatzat. Hala eta guztiz ere, batzuek XV. mendera arte atzera egiten dute globalizazio prozesuaren lehenengo aurrekariak aurkitzeko (Ferrer, 1996). OCDEko herrialdeen kasua aintzat hartuz gero (eta ez dezagun ahaztu hauexek direla Industrializazio Berriko Herrialdeekin batera gehien esportatzen dutenak), 80ko hamarkada amaitzear zegoenean Lehenengo Mundu Gerratearen aurreko BPGreekiko esportazioen portzentaiak iritsi gabekoak ziren<sup>10</sup>. Datuak eskuragarri dauden 17 herrialde industrializatuentzat BPGarekiko esportazioak %12,9koak ziren 1913an, 1993rako datua %14,5ean kokatzen zelarik<sup>11</sup> (PNUD, 1997). Honek

---

10. Esportazioei dagozkien datuak termino nominaletan edo errealetan adieraziz gero, emaitzen arteko aldeak nabariak dira. Aldagai errealetan neurtuta, esportazioen garrantziak handiagoa ematen badu ere, Robert Sutcliffe eta Andrew Glyn-ek aldagai nominalak erabiltzearen aldeko apustua egiten dute, esportatzen diren ondasunek duten prezioen hazkundera beste guztiena baino txikiagoa dela argudiatuz.

11. Mendearen hasierarekiko konparazioak ohizkoak bihurtu badira ere, estatistika horietan agertzen diren herrialde industrializatuaren egoera Lehenengo Mundu Gerratearen aurreko garaiekin zenbateraino den alderatzekoa planteatu beharra dago. Era berean, eta datu hauen baliagarritasuna neurri batean kolokan jarriz, Europar Batasunaren barne merkataritza alde batera utzita aurrerago egin dugun legez, herrialde industrializatu horien datuetatik bakoitzaren eremu kolonialaren barruko merkataritza kentzea ere proposa liteke.

guztiak neurri batean zalantzan ipintzen du merkataritza jardueraren inguruan zabaldua dagoen uste hori, hau da, merkatuak inoiz baino zabalagoak direnez, nazioarteko merkataritza inoiz baino hedatuago dagoela dioena.

Kapitalaren mugikortasunari dagokionean ere badaude zenbait lan 1914 baino lehenagoko garaiekin konparazioa egin eta gero, orduan ematen zen zabaltze mailara gaur egun oraindik ere heldu gabeak garela diotenak. Era horretan, Robert Zevinen esanetan, zenbait finantza merkatu estatalen egoera aztertu eta gero, titulu atzerritarren proportzioa merkatu estataletan Lehenengo Mundu Gerratearen aurrekoa baino txikiagoa da gaur egun. Ildo honetatik doan beste datu bat ere badaukagu: 1905 eta 1914 bitartean Britainia Handian kapitalaren esportazio netoa errenta nazionalaren %6,5era iristen zen, eta egoera hau ez da berriro gertatu inongo herrialde industrializatuan, Japonia barne, ez 80eko ezta 90eko hamarkadan ere (Wolf, 1996).

XIX. mendearen bukaera eta XX.aren hasiera gaur egungo garaiekiko konparazioetarako erreferentzia modura hartzen dutenen artean UNCTAD erakundea bera agertzen zaigu, bi sasoi arteko nolabaiteko parekotasunak egon badaudela adierazten duelarik<sup>12</sup>. OCDEren arrimuan Maddisonen eskaintako datuetan oinarrituta, UNCTADen 1997ko "Trade and Development Report" txostenean, orain bezala, garai haietan ere joera nagusia herrialdeen arteko dibergentziarako zela ondorioztatzen da<sup>13</sup>.

Laneskuaren mugikortasunaren kasuan interesgarria izan daiteke begirada bat botatzea hainbat mendetako historiari. Mendeetan zehar ezagututako biztanleriaren mugimenduak, hainbat inperiok bultzatutakoetatik hasita, ez dira gutxi eta nolanhikoak izan. Gaur egungo edozein herrik beste kultura eta herriekiko nahasketa ugari eta populazioaren mugimenduak ezagutu ditu. Amerikaren aurkikuntzak, edo Asiarako edo Afrika hegoalderako bideen irekierak oso migrazio prozesu jendetsuak zabaldu zituzten. Kapitalismoaren sorrera eta garapenarekin batera migrazio korronteak gehitu egin ziren, eta XVIII. mendearen bukaera aldera hasita, XX. mendearen erdira arte migrazio mugimendurik aipagarrienak suertatu ziren, EEBB, Latinoamerika, Ozeania, eta Afrika hauen helmugak izan zirelarik (Palomares, 1981):

- EEBBetan 1790tik 1950era 40 milioi atzerritarrek aurkitu zutela bizilekua estimatzen da. Europako herrialdeetatik EEBBetara bultzatutako migrazioa 1860-1913 epealdian bereziki nabarmena izan zen, 26 milioi etorkin heldu zirelarik. Hasiera batean britaniar eta alemaniarrek izan ziren EEBBetarako bidea hartu zutenak, eta 1880tik aurrera eslaboak (errusiar eta poloniarrek batez ere) eta latinoak izan ziren nagusi, Lehenengo Mundu Gerratearen ostean nordikoen pisua (suediarrek bereziki) nabaria izan zelarik. Epealdi horretan zehar Asiako etorkinen kopurua ere ez zen makala izan.

---

12. Bairoch eta Kozul-Wright-ek 1996an egindako lanean, aldiz, gaur egungo nazioarte mailako ekonomiaren hainbat ezaugarri berriak ez direla onartuz, ez dute onartzen 1913. urtearen aurreko hamarkadekin askotan egiten den parekatze hori, argudiatuz merkataritzaren liberalizazioa eta Estatuaren garrantziaren gainbeherakada ezin direla garai horretako ezaugarritzat hartu.

13. Globalizazioa eta ekitate faltaren arteko loturak Jeffrey G. Williamson-en 1997ko lan batean daude oso sakonki aztertuta, 1914aren aurreko hamarkaden eta mende honetako azkeneko arteko konparazioa irizpide nagusitzat hartzen duelarik.

- Latinoamerikaren kasuan datuak EEBBetakoak baino txikiagoak izan ziren: 1810tik 1950era 12 milioi atzerritar hurbildu ziren zonalde honetara, gehienbat Espania, Portugal, Alemania eta Italiatik irtendakoak.
- Ozeaniari dagokionez, 1850tik 1914ra arte gertatzen dira migrazio fluxurik adierazgarrienak, Britania Handitik bidalitako etorkinen bitartez. 1850ean 400.000 pertsona inguru zeuden kontinentean, milioi bat 1858rako, eta lau milioi 1900. urterako.
- Fidatzeko moduko datuak ez dauden arren XIX. menderako, azpimarratzeko modukoak dira Afrikako hegoaldera holandarrek eta batez ere britaniarrek burututako migrazioak (1850-1914), edo kontinentearen iparraldean batik bat frantziarrek eta italiarrek XIX. mendean zehar eta Lehenengo Mundu Gerratera arte aurrera eramandakoak.

Baina denboran hurbilago etorrita eta mende honetako azken bost hamarkadak aintzat hartuta, baditugu beste zenbait adibide iraganean migrazio fluxuek izan duten garrantziaren adierazleak direnak. Mende honen bigarren erdian Europako mendebaldea helmugatzat zuen populazioaren lehenengo mugimendu aipagarria gauzatu zen. Gerraren osteko hazkunde ekonomikoa aprobetxatzeko asmotan, Afrikako iparraldea, Karibe, Turkia, Jugoslavia ohia, Espania eta Portugaldik migrarien irteera nabarmena ezagutu zen (latinoamerikarren fluxua EEBBetara edo asiarrera EEBB, Ozeania eta Europa aipatzekoak dira ere). Hala ere, 70eko hamarkadaren hasierako krisialdiarekin batera, gauzak okertzen hasi zirenean, atekak itxi egin zitzaizkien berriro etorkinei.

Beste migrazio korrante handi bat 1973ean hasi zen Golkoko herrialde petrolio esportatzaileetarantz Ekialde Hurbiletik eta Asiako Hego eta Hegoekialdetik (Egipto, India, Pakistan, Hegokorea edo Filipinak aipagarrienak zirelarik). Munduko beste herrialdeetan petrolioaren prezioak arazoak sortu bazituen, zonalde honetan etekinen gorakada eta laneskuaren erakarpena eragin zituen. Petrolioaren prezioak maila altu batean mantendu ziren bitartean migrarien korrante horiek bere horretan jarraitu zuten, baina 80eko hamarkadaren lehenengo urteetatik prezioek beherako joera hartu zutenean, migrazioaren pisua ere gutxitzen joan zen.

Azken aldi honetan, 80eko hamarkadan, gertaturiko beste migrazio prozesu nabaria EEBBetara zuzendutakoa da, populazioaren irteera puntuak Ertamerika eta Asiako ekialdea izanik<sup>14</sup>. Epealdi honetan Australia eta Kanada aldera zuzendutako fluxuak ere ez ziren nolana hikoak izan. Gaur egun ere migrazio mugimendu horiek oraindik indarrean daudela esan dezakegu, baina joera hori eragozteko asmoz neurri desberdinen aplikazioa gero eta gehiago ugaritzen ari da.

Bukatzeko, aipatzekoa da Europako mendebaldearen inguruan osatzen ari den beste migrazio gune bat ere. Honen abiapuntua 1989an kokatu beharra dago, harrez geroztik herrialde batetik bestera mugitzeko askatasuna ustez bermatzen zuten legeen aplikazioa indarrean ipini zelako. Hala ere, lehen adierazi bezala, lan merkatuaren gaineko liberalizazio prozesu honek globalizazioarekin baino gehiago maila erregionalean osatzen ari den integrazio egitasmo jakin batekin daukala zerikusia esan beharko genuke.

---

14. 1980eko hamarkadan 7.338.000 legezko etorkin sartu ziren EEBBetan. Ez-legezkoen gaineko estimazioa kontuan hartuta guztira 10 milioi inguru sartu zirela kalkulatu da (UNFPA, 1993).



Azken 50 urteetako historian, hortaz, migrazio prozesu ugari behin-behinean zabaldu badira ere, hau da, baldintza ekonomikoek horretarako aukera eman duten bitartean, ezin dugu pentsatu, ezta gutxiagorik ere, lan merkatua mundu mailan zabalik dagoenik. Era honetan, kualifikazio gutxiko lan merkatuan globalizazioa zientzia fikziozko gidoietan soilik aurki daitekeen egoera dela esan beharra dago. Lanesku honen mugikortasuna berez oso txikia bada, azken urteetan agerian geratzen ari diren joeren arabera, gero eta txikiagoa bihurtzen ari da<sup>15</sup>.

Alde horretatik, lehen aipatutako datuek agerian uzten duten legez, XIX. mendearen bukaera aldera eta XX. hasieran herrialde batetik bestera mugitzeko gaur egun baino eragozpen gutxiago zegoela baieztatu genezake. Filosofia ekonomiko liberalaren barruan oso arrazoizkoa ez dirudien errealitate hau justifikatzeko mota askotako argudioak entzuteko parada izaten dugu, kultura eta hizkuntzaren defentsatik hasita, krisialdi ekonomikoari lotuta doazenekin amaitzeko.

Askotan herritar xumeari sinestarazi nahi zaio zeozelango inbasioa gertatzen ari dela Hegoaldeko herrialdeetatik ateratako migrarien aldetik. Baina datuak oraingo honetan ere oso esanguratsuak dira: 1990an Europar Batasunean zeuden migrarien kopurua biztanleria osoaren %4ra besterik ez zen heltzen (UNFPA, 1993). Geroxeago irtenbide gisara aipatuko dugun herritartasun unibertsalaren kontzeptuaren inguruan pixkanaka-pixkanaka sartzeko joateko mundu mailan hedatu beharreko eskubideez hitz egin beharko genuke kasu honetan, besteak beste nork bere bizilekua aukeratzeko askatasunarena ahaztu ezin dugularik.

## **8. Elkarmenpeketasuna al da egoera hau adierazteko hitzik aproposena?**

Elkarmenpeketasun honen inguruan, aipatu beharko genuke ez dakigula zenbateraino erabil dezakegun hitz hau Hegoa eta Iparraren arteko harremanak aztertzerakoan, are gutxiago, gaur egun garapen bidean diren herrialdeen artean gehienek gero eta indar gutxiago dutenean nazioarteko harreman ekonomikoetan. Berbaren bat aipatu behar izatekotan, aproposa dirudi "menpeketasuna" esatea hainbat herrialderen egoera islatzeko. Elkarmenpeketasunerantz doan dinamika bat zabalik badago, hau herrialde industrializatuen artean gertatzen dena izango da, jokoaren arau berrien arabera, ekonomia hauek baitira zenbait alorretan muga gutxiago izango dituen mundu honetan besteekin batera lehiatzeko moduan egongo direnak, eta horrexegatik hain zuzen, prozesu hau elkarmenpeketasun terminotan ulertuko dutenak. Beste askorentzat, aldiz, isolamendua edo bazterketa

---

15. Hala eta guztiz ere, badago migrazio mugimenduen globalizazioaz ere hitz egiten duenik. OCDE delako erakundeak 1992an argitaratutako "Trends in International Migration" izeneko txostenean ondasun eta zerbitzuen merkatuan legez, laneskuaren mugikortasuna dimensio global bat hartzen ari dela baieztatzen da. Ideia honen argudio nagusia zera da, kontinente guztiak dinamika honetan murgilduta daudela eta nolabaiteko dibertsifikazioa gertatzen ari dela. Txosten berean, aldiz, mugimendu hauen joerarik nabarmenena osatzen ari diren bloke ekonomikoen arabera ulertu behar dela onartzen da. Azpimarratu beharra dago halaber nahiko kontraesan nabarmena dela orain aipatutako ikuspegiaren eta erakunde honek berak 1997ko izenburu bereko txostenean agertzen duen zenbait datuen artean. Izan ere, azken lan honetan OCDEko herrialdeetan azken urteetan indarrean jartzen ari diren legedi zorrotzen berri ematen da. Era horretan, helburu nagusia etorkinen sarrera galaraztea izanik, 1994-97 epealdian hainbat herrialde industrializatutako mota honetako neurriak hartzeari ekin zioten, besteak beste, Luxenburgoko, Belgika, Austria, Holanda, Alemania, Suitza, Kanada, Australia, EEBB edo Japonia aipatzen direlarik.



da gaur egungo nazioarteko harreman ekonomikoen testuinguruan euren indar koerlazioen arabera jasotzen duten gaiza bakarra.

Ekonomi teoriak dioenaren arabera, harreman ekonomikoen liberalizazioak ustez bizitza mailak berdintzeko joera eskaintzen du, denei arau berdinekin jokatzeko aukera ematen dienez, zuzentasun kutsua ezartzen duelarik. Teoriatik errealitatera zelako tartea dagoen ikusteko, aldiz, biztanleriaren %20rik aberatsena eta pobreena alderatzen dituzten datuei eman diezaiegun begiradaxo bat: horrela ratio hau 1960ean 30etik 1erakoa bazen, 1994an 78tik 1erako mailan kokatu zen (PNUD, 1997).

Harreman ekonomikoen zabaltzea aipatzen denean geure buruari galdetu beharko genioke norentzat gertatzen den zabaltze hori, edo noren esku dagoen horren onurak aprobetxatzea aberats eta behartsuen arteko diferentziak areagotzen ari diren mundu honetan, geroz eta handiago bihurtzen ari den populazioaren zati bat baztertuta utziz. Ikuspegi honetatik, beraz, arlo ekonomikoan mundu mailako nolabaiteko zabaltze bat gertatzen ari dela, eta egoera hau edozein herrialde eta gizabanakoarentzat mesedegarria dela ulertzea, lan benetan zaila bihurtzen da.

### **9. Nazio-estatuaren erreferentzia gaindituta al dago?**

Globalizazioaren inguruko analisi gehienetatik estatu-nazioa erreferentzia moduan desagertzen ari dela, edo marko hori handiagoa den beste batek gainditu duela ondorioztatzen da, arlo ekonomikoan zein politiko eta sozialean. 50 eta 60ko hamarkadetan, hazkunde tasa handiak izan zirelarik, Estatuaren garrantzia oso nabarmena izan zen arlo ekonomikoan, keynesiarren ekonomi teoriaran eta horretatik ateratako proposamenetan oinarrituta. Bere eginkizun nagusien artean, egonkortze politiken bitartez, hazkunde ekonomikoa bultzatzea eta arlo sozialean gutxieneko ongizate maila bermatzea biztanleria osoarentzat, birbanaketarako tresna desberdinak martxan jarritz. Jakina denez, azken ezaugarri honetatik datorkio Estatuaren esku hartzea ardatz modura duen sistema honi bere izena, Ongizate Estatu alegia.

Gaur egun aldiz, nazioarte mailan ezezik, estatu bakoitzaren barruan zabal-dutako liberalizazio prozesuaren ondorioz hau guztia amaitzen ari dela esan ohi da. Hasieran aipatutako ekonomi politiken alorrean gertatzen ari den homogeneotasunerako joerak zeresan handia du dinamika honekin, zeren eta gobernu gehienetan inplementatzen ari diren politiketan merkatuari gero eta bide gehiago zabaltzen ari zaizkio, Estatuaren pisua, horren ondorioz, apurka-apurka beherantz doan bitartean. Beste aldetik, sektore pribatuaren esku geratzen ari diren jarduera ekonomikoak gero eta ugariagoak dira, gobernu gehienetan pribatizazioaren aldeko jarrera gailentzen doan neurrian.

Honez gain, sortzen ari diren integrazio prozesu desberdinetan argi ikusten da gobernuek dinamika horretan sartu nahi izanez gero, arlo batzuetan amore eman beharko dutela eta erabakitzeko ahalmena estatuen gaineko erakunde batzuen esku utzi beharko dutela, euren subiranotasunaren zeozelango galera jasan behar izanez ezinbestean. Baina integrazio bloke bakoitzean gertatzen ari

den bateratze eta konbergentziarako joerek multzo horren barruan berdintasuna edo homogeneousutasuna faboratzen duten arren, aldi berean, beste guztiekiko diskriminazioa bultzatzen dute, eta honek elkarmenpekotasun eta globalizazioarekin baino gehiago, batzuk besteekiko duten menpekotasunari lotutako dinamikarekin zerikusia duela ohartarazi beharra dago.

Hala eta guztiz ere, nazioarte mailan badago beste joera bat gobernuen zeregina neurri handi batean baldintzatzen duena, eta hori finantza merkatuen jarduera da. Nazioarteko kapitalen mugimenduak gero eta askeagoak eta ugariagoak dira, praktika espekulatiboan bidez egoera desegonkorak sor daitezkeelarik. Horrela gobernuen garai bateko neurriak (politika fiskal eta monetaren ingurukoak) erabakitzeko eta martxan jartzeko ahalmena mugatu egiten zaizkie, dinamika eta aldagai batzuk euren muga geografikoetatik kanpo erabakitzen direlarik. Hori gutxi balitz, egoera berri honetan finantza krisialdiak lehen baino errazago suerta daitezke aktiboen prezioek dituzten gorabeheren edo dibisen kotizazioek duten ezegonkortasun handiagoaren eraginez, mundu osora lehen baino arinago hedatu ahal izanez horrela.

Honez gain, multinazionalen erabakien aurrean gobernuak askotan topatzen dituzten mugak eta murriztapenak ez direla nolana hikoak ere aipatzekoa da. Izan ere, askotan gobernuak eskuak loturik geratzen dira multinazionalen herrialde batetik alde egiteko erabakia hartzen dutenean, euren ihesak normalean sortzen duen langabezia eta egonezinari aurre egiteko bitarteko gehiegirik izaten ez dutelako.

Honek guztiak, baina, ez du esan nahi gaur egun hedatzen ari den nazioarteartzeko joera honen barruan estatu-nazioek zeregin handiegirik ez dutenik. Izan ere, lehenengo eta behin argitu beharra dago egoera hori ez dela era berean gauzatzen estatu guztientzat. Nazioarte mailako liberalizazio politika batek izan ditzakeen efektu kaltegarrien aurrean, estatu batzuek eta besteek duten ahalmena horiek arintzeko, edo ahal badute ekiditeko, ezin da pentsatu inondik inora berdinak ez eta antzekoak ere direnik. Hori egiaztatzeko modurik onena zera da, nazioarteko erakundeetan batzuen eta besteen proposamenei egiten zaien kasua, edo foro horietan bakoitzak presionatzeko duen ahalmena aztertzea. Mundu mailan EEBBen kasua oso adierazgarria den bezala, hurbilago etorrita, Europako Batasunaren barruan ere Alemaniak edo Frantziak duten pisu espezifikoa ezin da alderatu Espainiak edo Portugalek dutenarekin. Ahal dutenek, beraz, segituko dute euren indarra erakusten eta erabiltzen euren interes partikularrak arriskuan agertzen diren bakoitzean.

Kanpotik etor daitekeen kompetentziaren aurrean edo gobernuak izan dezaketen subiranotasunaren galerari begira, estatu-nazio batzuek izaten dituzten errezeloek lagun diezagukete ulertzen globalizazioranzko bidean agertzen diren trabak ez direla batere samurrak. Izan ere, aditu batzuen ustetan gaur egun kapitalismoa erabat globalizatuta egoteko dagoen muga bakarra estatu zentralisten existentzia da, honek babes neurri, legedi eta ekoizpenerako baldintza desberdinen bitartez (soldatak, zergak, lanaren inguruko arautegia) mundu osora zabaltzeko bidean dagoen ekonomiari etengabeko oztopoak jartzen dizkiolako (Vidal Villa, 1996). Britainia Handiak Europarekiko historikoki izan duen jarrera ezkorra egoera honen adibide gisa har daiteke; mundu mailan EEBB, Japonia eta Batasun

Europarraren artean nekazaritza, industria, eta zerbitzuen alorretan dauden tira-birak ere aipatzekoak dira globalizazioak aurkitzen dituen trabez hitz egiterakoan. Jarrera hauen bidez Estatuak nahi dutena zera da, euren biztanleriaren interesak, edo behintzat hauen zati batenak, defendatzea. Gubernuen mota honetako esku hartzeko ahalmena zenbat eta handiagoa izan, mundu mailako ekonomian planteatuko den konkurrentziak hainbat gutxiago izango luke enpresa artekotik, harreman ekonomikoek nazioartekoak izaten jarraituko luketelarik.

Beste aldetik, ez ditugu gutxietsi behar gobernuek oraindik daukaten ahalmena euren ekonomi politikak aurrera eramaterakoan. Herritar xumeari askotan sinestarazten zaion ez bezala, globalizazioa ez da zerutik jausita datorkigun egoera bat, hainbat arlotan gobernuek hartutako erabakien ondorioa baizik. Horrela azken hamarkadetan hartutako neurriak ildo horretakoak izan diren bezala, aurrerantzean horren kontrakoak izan daitezkeela ere onartu beharra dago, hasiera batean aipatu dugun globalizazioari lotutako ekidinezintasun sentimendua ezeztatuz. Gaur egun ia ezinezkotzat jotzen den bigarren testuinguru honetan egotea litekeena da, are gehiago lehian aritzen diren potentzia nagusien arteko gatazkak inoiz egoera larriago batean sartuko balira (Japonia, EEBB eta mendebaldeko Europaren artean merkataritzaren alorreko ika-mikak ez dira berriak eta etorkizunean ere, orain arte bezala, suerta daitezke zalantzarik gabe).

Hau guztiaz aparte, ezin dugu ahaztu gizarte, politika eta kulturaren alorretan estatu-nazio bakoitzeko berezitasunak nabarmenak direla, eta honek ere arlo desberdinetan gertatzen ari den internazionalizazioaren dinamikari traba eta oztopo ugari jarri dizkiola eta jarriko dizkiola. Lan harremanen eta gizarte politikaren inguruko arauketa bereziki, gaur egungo estatuen gainean geratzen den funtzio nagusietako bat dela esan daiteke (Zabalo eta Zurbano, 1998). Globalizazioa eragozten duen dinamika honek are indar handiagoa hartzen du hainbat estaturen barruan estaturik gabeko nazioen sentimendu abertzaleak berpizten ari diren historiaren une partikular honetan.

Izan ere, Europar Batasunean legez, alde batetik, estatuen gaineko erakunde eta eremu berriak sortzen ari diren bitartean, estatu-nazioek erabakitzeko ahalmena nolabait galduz, beste aldetik, herrialde askotan erabaki eta administrazio guneak gero eta hurbilago ikusi nahi ditu jendeak, eta errebindikazio hauek norberaren kultura, hizkuntza eta nortasunari lotuta joaten dira normalean. Era honetan, gero eta ageriago geratzen ari da estaturik gabeko nazioen arazoa ere oztopo larria izan daitekeela arlo ekonomikoan gauzatzen ari den nolabaiteko zabaltze prozesu honetan, nazio bakoitzak, estatu askok egin duten eta oraindik egiten duten eran, herriaren interesak babesteko tresnak euren esku eduki nahi izango baitituzte.

## **10. Globalizazioa edo dena delakoaren ustezko onuragarritasuna**

Ez da erraza nazioarteko erakunde batzuen baikortasunarekin bat etortzea merkatuaren liberalizazioak ekar ditzakeen onurak eta abantailak ebaluatzerakoan<sup>16</sup>.

---

16. Ekonomia merkatuzale batek dituen abantaila eta onurak azpimarratzerakoan Nazioarteko Moneta Fondoa, Munduko Bankua edota GATTen ordezkaria izan den OMC delakoa, alegia, Munduko Merkataritza Erakundea, dira ideologia honen bozgoragailu lana betetzen duten erakunde nagusiak.

Errenta mailari begira herrialdeen arteko tartea zabalduz doan arren, Nazioarteko Moneta Fondoak, besteak beste, jarraitzen du esaten merkataritzaren zabaltzea eta errenta per capitaren hazkundearen arteko erlazio zuzena dagoela. Honen ustez, ekonomia irekiak merkataritzaren hedapenez aprobetxatzeko baldintza hobegotan daude, azkenean horrek inbertsio zuzenen erakarpena erraztuko duelako (FMI, 1997). Baina ekonomiaren inguruan ez dago aditua izan beharrik merkatuaren dinamika, batez ere, indartsuari egiten diola mesede jakiteko. Ekonomiako sarrera testuliburuek ere Estatuaren esku hartzerik gabeko merkatuak errentaren aldetiko desberdintasunak ugaltzera eramaten duela adierazten dute, eta errealitateak ere, batzuk globalizaziotzat hartzen duten fenomeno honen ondorioz, egoera bera sortzen dela erakusten du.

Nazio Batuen inguruan lan egiten duten zenbait erakundeek globalizazioaren efektuen gaineko gogoeta ugari egin dituzte azkenaldi honetan. Hauen artean, nonbaitetik hastearren, Gizarte Garapenerako Ikerketa Institutuak, UNRISD delakoak, 1995eko Kopenhageko gailurrerako prestatutako txostena aipatu beharko genuke. Honetan arlo sozialean gertatzen diren hainbat hutsune eta tentsioez hitz egiten da, nazioarte mailako finantza erakundeek arlo honekiko izan duten axolagabekeria argudiatuz. Izan ere, Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak bultzatutako doikuntza politikei adjektiboak jartzerakoan penagarria hitza erabiltzen du, erakunde hauen lanak gizarte mailan izandako ondorio kaltegarriak agerian utzi guran.

UNCTAD izeneko erakundeak 1980eko hamarkadaren hasieratik aurrera gertatzen den ekitatearen aurkako joera azpimarratzen du bere 1997ko txostenean<sup>17</sup>, lehenago ere datu batzuen bitartez adierazita geratu den bezala. Afrika edo Latinoamerika bezalako adibideak hauen artean bereziki esanguratsuak dira. 1965etik 1995era Afrikako batezbesteko errenta per capita OCDEko herrialdeena erreferentziatzat harturik, %14tik %7ra pasatu zen; Latinoamerikaren kasuan 1979-1995 tartea hartuta, portzentai horren bilakaera %36tik %25erakoa izan zen. Modu honetan, erakunde honek errenta mailarekiko gauzatzen ari den dibergentziari garrantzi berezia ematen dio, globalizazioa delakoaren ondorioak aztertzerakoan.

PNUD delakoak ere bere 1997ko txostenean puri-purian dagoen globalizazioaren gaiaren inguruan hausnarketa batzuk egiten ditu. PNUDek planteatzen duen eran, globalizazioak irabazle eta galtzaileak sortzen ditu, behartsuenak diren herrialdeen eta gizarte taldeen interesen defentsa prozesu honetatik erabat kanpo geratzen delarik. Txostenean adierazten den modura, ekonomikoki indartsuenak eta dinamikoak izango dira globalizazioaren onurak jasoko dituztenak. Ildo honetatik doa aditu askoren analisia, globalizazioa kapitalismoaren etorkizuna ziurtatzen saiatzeko formula bat dela esaten dutenean. Baina estrategia honek herrialde kapitalista "garatuak" munduaren ardatz gisa jartzen ditu, beste guztiak modu batean edo bestean hauekiko kokapen jakin bat hartuta, horrek guztiak menpekotasuna eta bazterketaren bidez arazo ekonomiko eta sozial larriak eragiten dituelarik (Dibaja, 1997).

---

17. Erakunde honetako kidea den Anthony Woodfieldek 1996an idazten zuen eran, desarauketa eta liberalizatorako politikak ez dira inondik inora neutralak eta babes soziala sustatzen duten neurri konpentsatzaileak guztiz beharrezkoak dira, arlo sozialean globalizazioak sortzen dituen kalteei aurre egin ahal izateko.

Herrialde industrializatueta ere, Ongizate Estatuaren desegituraketarekin batera errentaren banaketa gero eta modu zuzengabeagoan burutzen ari da, gizarte talde batzuen eta besteen polarizazioa areagotuz. "Garatuzat" hartzen den EEBBetako ekonomian, adibidez, 20 milioi txiro baino gehiago daudela estimatzen da (Vidal Villa, 1996). Horrela, errentaren banaketari begira, herrialdeen araberrako egituretan oinarritutako analisisiek gero eta balio gutxiago dutela ematen du, pobrezia-aren arazoa ez dela Hegoaldeko herrialdeek soilik pairatzen duten izurritea erakutsiz.

## 11. Ondorioak

Egia da mende honetako azken hiru hamarkadetan gauzak asko aldatu direla nazioarteko ekonomiari dagokionez, liberalizazio joera desberdinak aurrera eramanez, gehienbat, merkantzien eta kapitalen mugikortasunaren inguruan. Honez gain, gobernuak bultzatutako ekimenen ondorioz, Ongizate Estatuaren desegituraketa dela eta kapitalismoa are merkatuzaleagoa ere bihurtu da. Eta azkenik, garai bateko planifikazio zentralerako herrialdeetan emandako aldaketak aipatu beharko genituzke, kapitalismoaren joko araupetan gaur egun, trantsiziozkoa izendatu den fase batean daudelarik.

Hau guztia ikusita, sistema neurri batean integratuago dagoela pentsa liteke agian, edo nolabaiteko homogeneotasunerantzko bidea zabaldu dela. Baina ideia orokor hori albo batera utzita, eta harreman horietan apur bat sakontzen hasten garenean, globalizazioaren inguruan hitz egiten dugunean zorrotzak izatea eta nabardurak sartzea zein garrantzitsua den konturatzeko gara.

Hasteko, globalizazio kontzeptu honen inguruan askotan mitifikazio eta irudimen gehiegi dagoela esan beharko genuke. Globalizazio hitzaren atzean mundu mailan erabat integratutako ekonomia bakarria izan beharko genuke, ondasun eta zerbitzuen, kapitalaren, eta lanekuaren prezio berdintsuak izan beharko litzuzkeena; honez gain, horien guztien mugimenduari dagokionez, inongo eragozpen edo trabarik ez litzateke egon beharko nazioarte mailan, eta zergak eta arautegiak berdintsuak izan beharko lirateke. Argazki honek, begi-bistakoa denez, ez dauka zerikusirik handirik gaur egun bizi dugun errealitatearekin.

Merkataritzak zein inbertsioek azken hamarkadetan produkzio mailak baino arinago egin dute gora, Bigarren Mundu Gerratea baino lehenago indarrean zeuden nazioarteko harremanetarako oztupo asko desagertu egin direla azalaraziz. Hori guztia behin onartu eta gero, argi utzi beharra dago nazioarteko ekonomia erabat globalki integratuta egotetik oso urrun dagoela. Babes neurri asko erabiltzen ari dira gaur egun oraindik merkataritzaren arloan, batez ere herrialde industrializatuen aldetik, oihala eta nekazaritzaren kasuetan egiten diren salbuespenak edo neurri ez-arantzelarioen aplikazioa aipatzekoak izanik. Lanekuaren mugikortasunari begira ere, beste aldetik, argi dago mundu honek globaletik ezer gutxi daukala.

Orokorrean hitz eginda, hortaz, nazioarteko ekonomia, globalizaturik egon gabe, merkataritza eta kapitalen fluxuei dagokionean, orain dela 50 urte baino zabalagoa dela onar daiteke, baina mendearen hasierarekin konparatuz gero horrenbesteko alde bat dagoela ikusita, ez du ematen fenomeno hau berria edo aurrekaririk gabekoa dela esatea oso egokia denik.

Harreman ekonomikoak ez daudela globalizatuta egiaztatu eta gero, globalizazioaz baino, nazioarteratzeaz edo erregionalizazioaz hitz egiteko komenigarritasuna mahaigaineratu beharrean gaude. Argi dago globalizazioa eta erregionalizazioa<sup>18</sup> ez direla gauza bera, baina zenbait adituk bigarrena lehenengoa ukatzen duen prozesu modura ulertzen duten bitartean, beste batzuek uste dute epe laburrean globalizazioak duen adierazleetako bat bloke erregionalen gauzatzean datzala.

Era honetan, azken hauen planteamendua zera da, mundu global batean bizi ez bagara ere, nazioarteko harremanak gero eta zabalagoak bilakatzen ari direla, lehenengo eta behin inguruko herrialdeekin, etorkizunean globalizaziorantz urratsak ematen jarraitzeko. Beste era batera esanda, gure mundua ez da globala, baina globalizatzen ari da.

Beste batzuen esanetan, aldiz, artikuluko honen ildo nagusiarekin bat eginez, globalizazio hitzak kasurik onenean gehiegikeria adierazten du. Aditu hauen ustez, egun gure aurrean dugun errealitateak globalizazioarekin baino hiru bloke ekonomiko nagusitan (bakoitzak bere Periferia partikularrekin lokarri ekonomikoak dituelarik) banatutako munduarekin zerikusi handiagoa dauka. Eta etorkizunari begira, aurrerantzean ekonomia global batera (zentzurik zabalenean) abiatzeko joerarik sortuko denik ere ez du ematen. Gero eta gehiago hedatzen ari diren erregio mailako blokeak gauzatzeko ekimena, besteen aurrean norberaren interesak babesteko jarreratzat<sup>19</sup> hartu behar da, eta horrek beste guztiekiko zeozelango diskriminazioa dakar definizioz, globalizaziorako bideak zailduz.

Artikulu honetan zehar globalizazioaren ustezko existentzia egiaztatzen, edo hobeto esanda zalantzan jartzen, ahalegindu gara, fenomeno honi gertakizunaren izaera eman diogularik. Baina ikuspegi honetaz aparte, globalizazioa egitasmo ideologiko modura ere uler daiteke. Alegia, globalizazioa errealitatea interpretatu ahal izateko tresna gisara, baina baita ere "errezeta" eta gomendiotzat jo daiteke. Eta proposamen honek gehienbat dakarrena zera da, nazio barruko eta nazioarteko merkatuen liberalizazioa, honek herriaren ongizatean oso ondorio onuragarriak izango dituela argudiatzen delarik ikuspegi honetatik.

Globalizazioa deritzon fenomenoaren inguruan ikuspegi baikorra mantentzen dutenek, bat egiten dute neoliberalismoak bultzatutako dinamikarekin, prozesu hori ekidinezina izateaz gain mesedegarria<sup>20</sup> ere badela adierazi nahian. Berlingo

---

18. Bi kontzeptu hauen inguruko gogoeta sakona Sandro Sideriren "Globalization and Regional Integration" izenburuko lanean daukagu. Autore honek erregionalizazioa mundu mailako lehiakortasuna eta elkartasuna lotzeko bidetzat jotzen du.

19. Begien aurrean dugun argazkitzat ez ezik, erregionalizazioa, globalizazioarekin gertatzen den bezala, egitasmo eta errezeta modura ere planteatu daiteke. Alde horretatik, Periferiako herrialdeen egoera sozioekonomiko larriari begira, Björn Hettnek alternatiba gisara lankidetzan eta erregionalismoan oinarritutako planteamendua aipatu beharra dago. Bere esanetan, merkatua ardatz gisa duen globalizazioak sortutako menpekotasun ekonomikotik eta bazterketatik ateratzeko bide bakarra horixe da. Ikuspegi honetatik, beraz, erregionalizazioa eta globalizazioa inondik inora ere bateragarriak ez diren bidetzat jotzen dira.

20. Peter Martin, Financial Timeseko kazetariaren iritziz, munduratzearen bertuteak benetan apartak dira, hainbat gizartetan ongizatea hobetzen lagundu duelako. Globalizazioaren aurkako jarrerak ezmoraltzat hartzen ditu gizon honek, Hirugarren Munduko herrialdeen aberasteko nahi eta helburuak zapuzten dituztela argudiatuz.

harresiaren erorketa gauzatu zenetik, kapitalismoa goraipatzeko mota askotako laudorioak entzuteko parada izan dugu, "pentsakera bakarra"<sup>21</sup> izendatua izan den ideologia neoliberalaren nolabaiteko indartzea eman delarik.

Bukatzeo, hausnarketa guzti hauetatik globalizazioa berez ez dela txarra atera nahi nuke ondorio gisara; oso egokia ez dena, aldiz, aukeratutako bidea da. Izan ere, mundu osoa erreferentzia modura hartzeak oso alde onak ere izan ditzake, harreman ekonomikoak irizpide bidezkoago eta zuzenagotan oinarrituta berreraikitzeo aukera teorikoa behintzat ematen duelako. Azken aldi honetan gero eta gehiago aipatzen ari den legez, urratu beharreko bidea herritartasun unibertsalaren kontzepturantz doana litzateke. Beste era batera esanda, helburua munduko biztanle guztien eskubideen onarpena eta betekizuna bermatzean legoke.

Nazioarte mailan hainbat harreman ekonomiko zabaltzen doazen bitartean, oinarritzko beharren asetzea ziurtatuko lukeen mekanismorik ez dago. Ongizate Estatuaren garaian behar horiekiko ardura nabarmena bazen eta estatu-nazio bakoitzean eskubide hori bermatzeko asmoz gobernuak esku hartzen bazuen arlo ekonomikoan, gaur egun herrialde bakoitzaren barruan dinamika hori gainbehera doa, eta nazioartean beharizan horiek bermatuko dituen estatu baten itxura hartu dezakeen erakunderik ez da oraindik asmatu. Estatuaren gaineko zenbait erakundetean, Europar Batasunean adibidez, kohesio eta konpentsazio neurriak hartu badaitezke, zergatik ezin da filosofia bera erabili mundu mailan?

Garapen kontzeptuaren inguruko azken urteetako eztabaidetan agerian geratu den bezala, giza-garapenerako bidean herrialde bakoitzeko ekonomiari begira egon beharrean, gizabanakoa bera da erreferentzia nagusia. Ez dugu, hala ere, ahaztu behar globalizazioak, herrialde industrializatuen "garapen ereduaren" zabaltze eta orokortze dinamikatzat hartuta, oso eragin larriak sor ditzakeela ingurugiroan, garapen sustengarriaren helburua zapuztuz, eta hurrengo belaunaldien bizi baldintzak larriki kaltetuz.

Harreman ekonomikoek nazioartera jotzen badute, erabaki-erakundeak ere sortu beharko dira maila horretan, baina ez orain indarrean dauden bezalakoak, baizik eta demokrazia eta justizia soziala ardatz moduan litzaketenak. Demokrazia eta gardentasunaren aldetik behar bezalako eraldaketak burutu eta gero, beraz, Nazio Batuen Erakundea<sup>22</sup> munduko legebiltzarren funtzioa osatzeko erronka aurrera eraman dezakeena izan liteke, hainbat esparrutan beharrezkotzat jotzen den nazioarteko araudi bat koordinatuz. Baina honez gain, arlo desberdinetan gizarte mugimenduek burutzen duten lana mota honetako egitasmo batean ezinbestekoa dela azpimarratu beharra dago. Mugimendu hauek herrialde bakoitzaren barruan burutzen duten sentsibilizazio lanez gain, nazioarteko gailur eta bilkuretan egiten dituzten aldarrikapen eta presioak ere aipatzekoak dira.

---

21. Ignacio Ramoneten "Pensamiento único y los nuevos amos del mundo" izenburuko lanean 80ko hamarkadan hasita, EEBBetako eta Britainia Handiko alderdi kontserbakorrek bultzatutako "iraultza" honen ezaugarri nagusiak azaltzen dira.

22. Beste zenbait adituren artean, Chakravathi Raghavan Nazio Batuen Erakundearen mota horretako eraldaketen aldekoa da, Nazioarteko Moneta Fondoa, Munduko Bankua, eta Munduko Merkataritza Erakundea lehenengo horren menpean erakunde tekniko gisara egon beharko liratekeela proposatuz.



Ez gara atzo goizean jaiotakoak eta badakigu bidea zailtasunez beteta dagoela. Edozein modutan ere, norantz joan behar garen, edo gutxienez zer norabide ez dugun hartu behar jakitea inoiz nahikoa ez bada ere, abiapuntu gisa bederen bada zerbait. Kapitalismoaren historiak argi utzi du sistema honi inongo kontrolik eta esku hartzerik ezarri ezean, eta behin bere kasa utziz gero, ezegonkortasuna eta ekitaterik eza nagusi direla. Merkatuaren indarrek bultzatutako sistema ezin da izan gizateriaren gehiengoaren ongizatea (oinarrizko beharrezkoen asetzeari, gutxienez) bermatuko duen tresna.

Azken hamarkadetako esperientziak, batzuek uste ez bezala, kapitalismoaren aldeko laudorio eta aldarrikapen gehiegirako motiborik ez du ematen. Irtenbide alternatiboen sorrera gainditu gabeko irakasgaien artean dugu oraindik ere; horren inguruko ikerketa eta irudimena behar beharrezkoa da konponbideak proposatzerakoan, baina egitasmo horiek gauzatzeko orduan lehenengo bi hauek bezain garrantzitsua borondate politikoa da. Horrexegatik hain zuzen, jotzen da hain funtsezkotzat gizarte mugimenduen lana inguru aurrerakoietan, erabaki guneen gainean hauek izan dezaketen eragina garrantzi handikoa izan baitaiteke.

## Bibliografia

- Bairoch, P. eta Kozul-Wright, R. (1996): "Globalization Myths: Some Historical Reflections on Integration, Industrialization and Growth in the World Economy", *UNCTAD Discussion Papers*, Geneva.
- Casen, B. (1997): "Para salvar la sociedad", *Le Monde Diplomatique*, 20, ekaina.
- Chakravarthi R. (1997): *La ONU debe dirigir la política internacional. Guía del Tercer Mundo*, Iepala, Madril.
- Dibaja, Z. (1997): "Globalization: The Last Sky", *The European Journal of Development Research*, 9, 1.
- FMI (1997): *Informe anual 1997*, Washington.
- Ferrer, A. (1966): *Historia de la globalización*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- Glyn, A. eta Sutcliffe, R. (1995): "El nuevo orden capitalista: ¿global pero sin líder?", *Mientras tanto*, 61, Fundación Giulia Adinolfi-Manuel Sacristán, Bartzelona.
- Hirst, P. eta Thompson, G. (1996): *Globalization in Question*, Polity Press, Cambridge.
- Hettne, B. (1997): "Development, Security and World Order: A Regionalistic Approach", *The European Journal of Development Research*, 9, 1.
- IMF (1992): *Measurement of International Capital Flows*, IMF, Washington.
- Maddison, A. (1995): *La economía mundial 1820-1992*, OCDE, Paris.
- Martin, P. (1997): "Una obligación moral", *Le Monde Diplomatique*, 20, ekaina.
- Martínez Peinado, J. eta Talavera Déniz, P. (1995): "El comercio Centro-Periferia" in Martínez Peinado, J. eta Vidal Villa, J.M., *Economía mundial*, McGraw-Hill, Madril.
- Naredo, J.M. (1997): "Sobre el rumbo del mundo", *Le Monde Diplomatique*, 20, ekaina.
- OECD (1992): *Trends in International Migration. Annual Report 1992*, Paris.
- , (1997): *Trends in International Migration. Annual Report 1996*, Paris.
- OMC (1995): *El comercio internacional. Tendencias y estadísticas*, Geneva.
- , (1996): *Informe anual 1996*, Geneva.
- , (1997): *Informe anual 1997*, Geneva.
- O'Neil, H. (1997): "Globalization, Competitiveness and Human Security: Challenges for Development Policy and Institutional Change", *The European Journal of Development Research*, 9, 1.



- Palomares, J.M.; Almuiña, C; et al. (1981): *Historia del mundo contemporáneo*, Anaya, Madril.
- Perraton, J.; Goldblatt, D.; Held, D. and McGrew, A. (1997): "The Globalization of Economic Activity", *New Political Economy*, 2, 2.
- PNUD (1997): *Informe sobre el desarrollo humano 1997*, New York.
- Ramonet, I. (1995): "Pensamiento único y los nuevos amos del mundo", in *Cómo nos venden la moto*, Icaria, Barcelona.
- Requeijo, J. (1995): *Economía mundial. Un análisis entre dos siglos*, McGraw-Hill, Madril.
- Sánchez Tabarés, R. (1995a): "La regulación del sistema económico internacional", in Martínez Peinado, J. y Vidal Villa, J.M., *Economía mundial*, McGraw-Hill, Madril.
- , (1995b): "La mundialización capitalista desde el centro del sistema", in Martínez Peinado, J. y Vidal Villa, J.M., *Economía mundial*, McGraw-Hill, Madril.
- Sideri, S. (1996): "Globalization and Regional Integration", *Institute of Social Studies, Working Paper Series 235*, The Hague.
- Sutcliffe, R. eta Glyn, A. (1999): "Still Underwhelmed Indicators of Globalization and their Misinterpretation", *Review of Radical Political Economics*.
- UNFPA (1993): *The State of World Population*, United Nations, New York.
- UNRISD (1995): *Estados de desorden. Los efectos sociales de la globalización*, Naciones Unidas, Geneva.
- Unceta Satrustegui, K. (1996): "Globalización versus regionalización: una interpretación sobre los bloques económicos", *V Jornadas de Economía Crítica*, Santiago de Compostela.
- , (1998): "La globalización y los procesos de desarrollo: algunas relaciones básicas", *VI Jornadas de Economía Crítica*, Málaga.
- UNCTAD (1996): *World Investment Report 1996*, Geneva.
- , (1997a): *Globalization, Distribution and Growth. Trade and Development Report, 1997*, Geneva.
- , (1997b): *Handbook of International Trade and Development Statistics 1995*, United Nations, Geneva.
- , (1997d): *World and Investment Report 1997*, Geneva.
- Vidal, J.M., (1996): *Mundialización. Diez tesis y otros artículos*, Icaria. Barcelona.
- Williamson, J.G. (1997): "Globalization and Inequality, Past and Present", *Research Observer*, 12, 2, The World Bank, Washington.
- Wolf, M. (1996): "The Global Economy Myth", *Financial Times*, February 13.
- Woodfield, A. (1996): *Repercusiones sociales de la globalización. Programa de alivio de la pobreza*, UNCTAD, Geneva.
- Zabalo, P. eta Zurbano, M. (1998): *Globalización, estado-nación y soberanía económica*, Fundación Manu Robles-Aranguiz, Bilbo.
- Zevin, R. (1992): "Are World Financial Markets More Open? If So, Why and With What Effects?", Banuri, T; Schor, J. (eds), *Financial Openness*, Oxford University Press.